

Bergarako astekaria

Berrigara



Elosuko feria

Urteroko zita Pilarika egunean

MASTER



KANGOO



URRIAN ZE HAR, LEHEN 4 KUOTAK DOAN.

MECA BERGARA

Amillaga 5. Tf. 943 76 40 68



egizabal

**Oinetakoak
eta poltsak**

Betikoak!
Lau belaunaldiren
bermea dugu.



Ferrerias, 9 • ARRASATE • 943 79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA • 943 76 12 28



**Hona hemen
Aretxabaletako
Jose
Joaquin
Urrutiak
irabazitako
saria uztaileko
bigarren
zozketan.**

Zorionak!!



RENAULT

MECA TAILERRAK

Tel.: 943 79 50 12 (Arrasate) / 943 76 40 68 (Bergara)



Beti pauso bat aurrerago

Tomasa Zabaleta / Jubilatua

Guk edadetuok badaukagu arriskua "gure garaia pasatu zela" pentsatzeko; gure garaia pasatu zela eta orain beste batzuei dagokiela historia egitea. Baina, beharbada, geuregeurea den faktore bat ahazten zaigu: esperientzia. Esperientziak orain arte egin dugun ibilbidea berriz aztertzeko aukera ematen digu, eta gure bizitzan egiazkoa zer den eta gezurrezkoa zer den bereizteko behar den perspektiba. Esperientziak abiapuntu berri batean jartzen gaitu, gure bizitzari irtenbide benetakoago bat emateko abiapuntu batean.

Zentzuaren eta benekotasunaren defizita duen gizarte batean bizi gara eta aukera eta, beharbada, erantzunkizuna ere bai, historia egiten jarraitu nahi dugula esateko; historia egiten, benekotasuna baloratu eta bultzatuaz.

Abiapuntu horretan kokatuta, ezin dugu pentsatu "gure garaia pasatu zela", pentsatu beharra dugu iritsi zaigula uea balore berri batzuk, erreferentziakoak izango diren balore berri batzuk, eraikitzeke. Eta hori erronka bat da baina baita aukera eder bat ere.

Urriaren 13tik 31ra Bergarako eta Antzuolako jubilatutako elkarteek antolatutako II. Kultur Hamabostaldia izango da. Ha-

mabostaldirako aukeratutako goiburua ondorengoa da: "Beti emon leike pauso bat aurrerago". Oinarritzko mezu hori izango da hitzaldietan eta mahai-inguruan aztertuko diren gaien ildo nagusia markatuko duena.

Fedea, Zoriontasuna, Boluntariotza... bezelako gaiak aztertuko ditugu, balore horiek bizi izateko gaurko moduz pentsatzera bultzatu asmoz.

Edadetuok herentzian hartu dugu fedea gure aurrekoengandik, eta, nolabait, errentetatik bizi gara. Ez dugu gure burutik prestatu fede hori ondorengoei, fedea herentzian ematearen eskema apurtu dutenei, transmititzeko. Hor dugu garran-

"Gaur egungo 'hori zure arazoa da' bezalako esamoldeak indibidualismo basatienaren adierazgarri dira. Edadetuok esperientziak dakigu indibidualismoak bakardadea eta frustrazioa ekartzen dituela"

tziko erronka bat.

Zoriontasuna komunikabideek sarri saltzen diguten produktua da, badakite eta gero eta jende gehiago dela antsiar bere bila dabilena. Edadetuok bizitzan zehar egin dugun ibilbideak erakusten digu benetako zoriontasunaren giltza ez dagoela hainbeste gugandik kanpo, gaurzeta, baizk eta geure barruan, geure bihotzean.

Gaur egungo kulturaren badira zenbait esamolde, erruz zabaldu direnak: "hori zeure arazoa da", "nik, paso", "ez zaitez zure roiltoa kontatzera etorri", eta abar. Indibidualismo basatienaren adierazgarri dira. Edadetuok esperientziak dakigu indibidualismoak, azkenean, bakardadea eta frustrazioa ekartzen dituela. Eta badakigu pertsonak edozein edadetan, baina batez ere zahartzaroan, besteen laguntza behar duela, eta solidaritate gabe bizitzak gizatasuna galtzen duela.

Aipatutako gaiok eta beste gai interesgarri batzuk jorratuko dira lau hitzaldietan eta mahai-inguruak bolondres-elkarteetan lan egiten duten lau pertsonaren esperientziak agertzea izango du helburu. Bai jubilatutako eta bai herri osoa gonbidatu nahi dugu hamabostaldiko ekitaldietan parte hartzera. **B**

■ barruan



A. Gallastegi

Enpresa ugazaba

"Kalitatearen trenean igotzea ezinbestekoa da gaur egun enpresa guztiontzat"

8. orrialdean.



Jose Angel Mikeo

Jarduneko presidente ordea

"Euskararen normalizazioaren astirotasunak prozesua arriskuan jar dezake"

13. orrialdean.



Gloria Ena

Irakaslea

"Yogarekin, besteak beste, gauzak modu lasaiagoan hartzen ikasten da"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1978. Urriaren 9an Boni Laskurain hil zen. Txistulari eta txistu-konpositore nabarmena izan zen. Euskal Herriko Txistularien Elkarteko kide eta 1958az geroztik ohorezko lehendakari.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1200. Urriaren 8an Gipuzkoak Gaztelarekin bat egin zuen.

1764. Urriaren 10ean Fernando Amezketarra jaio zen.

1987. Urriaren 10ean Koldo Mitxelena hil zen Errearterian.

MUNDUAN GERTATUA

1957. Urriaren 4ean Sputnik I satelite artifiziala lurraren orbitan lehen aldiz jartzea lortu zuen Sobiet Batasunak.

1991. Urriaren 7an Kroazia eta Eslovenia, Jugoslaviatik banandu eta errepublika independente bihurtu ziren.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 2

15-33-34-38-44-47 (osag.11/er.3)

Astelehena 5

1-3-4-26-40-47 (osag.42/er.1)

Martitzena 6

14-18-22-24-25-26 (osag.11/er.7)

Eguaztena 7

2-9-10-15-40-43 (osag.45/er.4)

PRIMITIVA

Zapatua 3

12-15-19-22-34-37 (osag.6/er.9)

Domeka 4 Gordo

1-5-24-26-29-32 (osag.4/er.7)

ONCE

Eguakitza 2: 75.890 (K. seriea: 135)

Astelehena 5: 21.879

Martitzena 6: 29.611

Eguaztena 7: 29.911

BESTE BATZUK


Angiozarko jaiak

Lisboara bidaia: 3.009

(agertuko ez balitz: 4.422)

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Hodeiak nagusituko zaizkigu asteburuan eta euria egin dezake, baina egunak pasa ahal piskana hobetzen joango da eguraldia. Tenperaturak gora egingo du. Haizea aldatu korra izango da baina ipar-mendebala nagusituko da.

Ilargiaren aldiak



Ilbete: urriak 5



Ilbehera: urriak 12



Ilberri: urriak 20



Ilgora: urriak 28

Eguzkia

Domeka, urriak 11



Sortu: 08:24



Gorde: 19:43

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 1	20	10	13,6
Eguakitza 2	16	12	35,3
Zapatua 3	20	10	0,5
Domeka 4	18	11	5,8
Astelehena 5	15	11	17,1
Martitzena 6	14	11	14,6
Eguaztena 7	14	9	18,4

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Akululari

Idi probetan idiak arreatzen dituena.

- Iri probetan alde aundixa dago akulularixa zelakua dan.



Josu OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Kafetan blai

Tokioko biztanle askok nahiago dituzte kafe-saunak, gure inguruan ezagutzen ditugunak baino. Gutxi gora behera 600 pezeta-ruke 20 minutuko saioak hartzeko aukera dago, aurretik 60 gradutara berotutako 200 tona kafetan. Saioan zehar piña-zumoa edateko aukera egoten da eta saio ostean, berriz, sagar-zumotan dutxa hartzekoa.

Farmaziak

Eguakitza 9:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Zapatua 10:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Domeka 11:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Astelehena 12:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Martitzena 13:

PUV. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguaztena 14:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguena 15:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Ogia

Domeka 11: Ogizun.

Astelehena 12: Konde.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

zorion agurrak



Iokin Narbaiza
Urriaren 9an 2 urte.
Zorionak! Ione,
Felix, Alen, Ainhoa
eta familiakoak.



Aitonak esan zuen
zapzi gaitzen aurka
berakatzak zuela/ onena-
ren marka/ Ez da horrela
izango./ zuek ikusita/ ba-
tera 25/ udazken bizita.



Unai Lopez
Urriaren 1ean
20 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



**Maria Teresa
Azkarate-Askasua**
Urriaren 13an
urtebetetzea. Zorio-
nak! Familiakoak.



**Xabier
Arrizabalaga**
Urriaren 2an
3 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Ohiana
Urriaren 10ean
14 urte. Zorionak!
Jolita, Pati
eta Izaskun.



Leire Gonzalez
Urriaren 6an
17 urte. Zorionak!
Anana.



Sara Moreno
Urriaren 6an 2 urte.
Zorionak! Gurasoak,
anaia, aitona-amona
eta osaba-izebak.



Maite Valpuesta
Urriaren 15ean
urtebetetzea.
Zorionak!
Senarra eta alabak.



Arritxu Barruso
Urriaren 11n
16 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Arantxa Iraegi
Urriaren 13an
37 urte. Zorionak!
Aitor, Olaia eta
Txentxo.



**Olaia
Zengotitabengoa**
Urriaren 9an
8 urte. Zorionak!
Familiakoak.



**Andoni
Arruabarrena**
Urriaren 12an 7 urte.
Zorionak bihotzez!
Koadrila eta familia.



**Miren
Arruabarrena**
Urriaren 12an 7 urte.
Zorionak bihotzez!
Koadrila eta familia.



Maria Cid
Urriaren 8an
urtebete. Zorionak!
Etxekoak.



Eider Mendia
Urriaren 6an
8 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Pilar Aranguren
Urriaren 11n
urtebetetzea.
Zorionak!
Familiakoak.



Julen Marquez
Urriaren 13an
4 urte. Zorionak!
Familiakoak,
Elisa eta Mikel.



Kristina Romero
Urriaren 6an 24 urte.
Librauko zifalakuan
ala? Zorionak!
Koadrilakoak.



Nerea de Pedro
Urriaren 3an
24 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.



Zuhaitz Ostolaza
Urriaren 5ean
17 urte. Zorionak!
Aske eta Lika.



Maitane Uribe
Irailaren 28an
16 urte. Zorionak!
Koadrilakoak.




Ariane Fernandez
Urriaren 11n
12 urte. Zorionak!
Gelako neskak.



Erik Iztueta
Urriaren 14an
17 urte. Zorionak!
Amaia eta Bat.



Sergio Romero
Urriaren 9an
17 urte. Zorionak!
Arrebak.



Anselmo Gomez
Urriaren 10ean
urtebetetzea.
Zorionak! Etxekoak.



**Gotzon Barrene-
txea-Arando**
Urriaren 6an
urtebetetzea.
Zorionak! Etxekoak.



Ion Urkia
Urriaren 6an
urtebetetzea.
Zorionak! Etxekoak.



Eider de la Roza
Urriaren 8an
10 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Joseba Elorza
Urriaren 6an
2 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Borja Jurado
Urriaren 9an
11 urte. Zorionak!
Familiakoak.



Leire altube
Urriaren 8an
3 urte. Zorionak!
Etxekoak.



Alda Ferreira
Urriaren 7an
urtebetetzea.
Zorionak!
Etxekoak.



Miguel Rodriguez
Urriaren 9an
urtebete. Zorionak!
Etxekoak.



Andoni Gomez
Urriaren 11n
10 urte.
Zorionak! Etxekoak.



Saioa Rodriguez
Urriaren 13an
5 urte. Zorionak!
Gurasoak


URTEURRENA

Agustina Igarzabal Aldasoro

Aurelio Bilbaoren emaztea

1998ko irailaren 8an hil zen, 77 urte zituela.
Bere oroimeneko meza urriaren 11n, domeka,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko familiakoen partez.*



ESKER ONA

Felipa Bergaretxe Ibabe

Bergaran hil zen 1998ko urriaren 3an,
93 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko sendikoen partez.*



jaioetakoak

BERGARA

Ane Loidi Eguren

Irailak 27

Miren Amaia Mujika Silva

Irailak 29

Nerea Aginagalde Batsardo

Irailak 30

hildakoak

BERGARA

Mari Karmen Lizau Larrañaga

Urriak 1, 69 urte

Miguel Oianguren Jauregi

Urriak 2, 77 urte

Felipa Bergaretxe Ibabe

Urriak 3, 93 urte

Xabier Aizarna Azula

Urriak 3, 76 urte

ANTZERKIA

► **Lourvier's story** gaur, eguakitza, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **Jousilouli** taldearekin hip-hop jaialdia gaur, eguakitza, 23:00etan Pol-Polen.

ERAKUSKETAK

► **Bergara Hiria XIV. Argazki Lehiaketako** lanak Kultur Etxean.

► **Edurne Erañaren** ikasleen lanak Nahikarin.

► **Xabier Agirrerren** margo erakusketa Bilboko Ederti galerian (Alda. Rekalde, 37).

IKASTAROAK

► **Islada bideo tailerra.** Edizio ikastaroa urriaren 23tik azaroaren 27ra. Argibideak Errotalde Jauregian. 943 77 91 58.

► **Ana Orgazen** tailerrak hainbat ikastaro antolatu ditu: arte eta eskulanak (izen-ematea Ardatzan eta Igartza mertzerian), ahots lanketa, erlajazio eta arnas-keta tailerra, masaje eta automasaje teknikak eta yoga ikastaroa. Azken hauetarako izen-ematea

JAIAK

Elosuko mendiko ganadu feria

Noiz: astelehenean, urriak 12, goizeko 9:00etatik aurrera Elosun

Astelehenean, Pilarika egunean, Elosuko ganadu feriaren 20. edizioa ospatuko da. Bertako Jai Batzordeak duela hiru bat hilabete ekin zion feria prestatzeari eta milioi eta erdi pezetako aurrekontua duen programa osatu da. Ohizkoa denez, Jai Batzordeak Azkoitia eta Bergarako udal-tako dirulaguntza jaso du. Feria goizeko 9etan zabalduko da eta 100dik gora abel-buru izango dira ikusgai goizean zehar, besteak beste, behiak, zaldiak, ardiak, ahuntzak, mandoak edota idiak. Era berean, baserriko makineria jarriko da Elosun eta baserriko produktuak (gazta, ezti, saggarrak, etabar luze bat) ere dastatu eta erosi ahal izango dira. Kinkillero postuak ere gero eta ge-

hiago izaten dira. Eguerdiko 13:30etan, bertsolarien saioaren aurretik, ganadu buru onenak sarituko dira. Arratsaldean, berriaz, 17:00etatik aurrera herri kirolen txapelketa jokatu da Osintxu, Antzuola, Elosu eta Bergarako taldeen artean. Egun guztian zehar Xafre eta Zaharra arituko dira eta iluntzeko erromeria ere beraiek alaituko dute.

Joseba Lizarralde Elosuko auzo alkatearen kalkuluen arabera, eguraldia ona izanez gero, feria egunean 8.000 lagun inguru biltzen dira Elosun. Bere hitzetan, "plaza txikia geratzen zaigu egun horretan eta aldameneko zelaia errentan hartu behar izaten ditugu, postuak jarri eta aparkalekuak egokitzeko. Datozen edizioei begira, plaza handitzeko premia dagoela ikusten dugu". B



Astelehenean baserriko produktuak ere dastatu ahal izango dira Elosun.

Etxeparen egin daiteke. Argibideak: 943 76 35 99.

► **Perkusio ikastaroa** Arrasateko Gazteluondo Ikastolan, astelehenero 18:00etatik 21:00etara. Argibideak 943 79 80 25 zenbakian.

LEHIAKETAK

► **Jokin Zaitegi XII. Itzulpen Laburren Sariaketa.** Aurtengo gaia librea izango da eta lanak (15-30 orrialde) urriaren 31 baino lehen aurkeztu

beharko dira. Argibideak 943 77 12 28 zenbakian.

► **Jose Maria Arizmendiarrera XIII. Lehiaketa,** irakaskuntza ertainetako Euskal Herriko ikasleei zuzenduta. Lehiaketaren gaia: "Amets

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa... Leihoak, atekak, manparak...



Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea BERGARA
Tf.: 943 76 55 02 Faxa: 943 77 11 30

Eskulan ikastaroa

Noiz: urritik maiatzera
Non: Kartzela Zaharrean
Ordutegia: 15:30etatik 17:00etara
Prezioa: 3.500 PTA
Jarduneko bazkideek eta 4.000 gainontzekoek



Matrikula epea: urriaren 15a.
Informazioa: Jardun elkartearen edo 943 76 08 19 / 943 76 36 61 telefonoetara deituz.

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

bat eraikiz". Lanak bidaltzeko epea 1999ko maiatzaren 17an bukatuko da. Argibideak: 943 79 31 32.

DEIAK

► **Mendi irteera** urriaren 18an, 7:30etan Frontoitik. Ibilbidea: Ocio-Txulato-Berantevilla. 943 76 48 51.

► **Intsumisio eguna** domekan, hilak 11, Uurbilen.

► **Joseba Jaka II. Literatur Bekak**, euskaraz sortutako olerki, eleberrri, saiakera edota gazte-literatur lanei zuzenduta. Argibideak: 943 21 94 27.

► **Nafarroa Oinezera** joateko autobusak izango dira hilaren 18an. Izen-ematea Aranzadi Ikastolan edo Jardunen.

OHARRAK

► **Orfeoikide** izan diren gutzien izenak jasotzeko, Orfeoitik pasatakoiei edota hauen familiei, urriaren zehar, Kultur Etxean, Irrintzin, Deba Garaia inbiliarian edo Antxonin izena emateko eskatzen zaie.

► **EAJk** Gipuzkoako mitin zentrala ospatuko du bihar, larunbata, 11:30etan Donostiako Victoria Eugenia antzokian, Jose

Antonio Ardanza, Joseba Egibar, Juan Jose Ibarretxe eta Xabier Arzalluzen partaidetzarekin. Bergarako EAJk gonbidapena luzatzen die bere alderdikideei aipatutako mitinera joan daitezten.

► **Akulu-AEK** euskaltegian EGA, euskalduntze eta guraso taldeetarako matrikula zabalik. 943 76 05 18.

► **EHk** deituta, astelehenean, hilak 12, "Konponbide garaia da" lemapean, manifestazioa izango da Donostian 17:30etan. Manifestaziora eta ondorengo mitinera joateko autobusa irtengo da Bergaratik 15:30etan. Izen-ematea Arranon edo Pol-Polen.

KINTADAK

► **1959**an jaiotakoan afarria urriaren 24an Antxonin jate-txean. Izen-ematea Goxo-Tokin edo Antxonin.

► **1949**ko kintoen anaiarteko eguna urriaren 24an. 12:30etan salda hartzea Sagarpe elkartearen eta ondorengo bazkaria Txuringon.

► **1955**ean jaiotakoan afarria urriaren 31n Antxonin. Izen-ematea bertan.

► **1940**an jaiotakoan afarria azaroaren 7an Antxonin jate-txean. Izen-ematea: 943 76 34 36 (Mari Tere) eta 943 76 45 75 (Begoña).

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Seis días y siete noches

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:30.

Horizonte final

Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.

Cuernos de espuma

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Cha-cha-cha

Eguakitza: 22:00.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00

Dr. Dolittle

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 17:00, 19:30, 22:00.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Siempre queda el amor

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Cha-cha-cha

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Godzilla

Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 20:00.

Astelehena: 20:00.

AZKOITIA. Baztartxo

Phantoms

Eguakitza: 22:00.

Astelehena: 17:15, 19:30, 22:00.

Seis días y siete noches

Zapatua: 22:00.

Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.

OÑATI. Santana

Godzilla

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:30.

SEIS DIAS Y SIETE NOCHES

Zuzendaria: Ivan Reitman.

Aktoreak: Harrison Ford, Anne Heche eta David Schwimmer.

Toki paradisiako batean, *Quinn Harris* abiadoreak (Harrison Ford) turistei zuzendutako ibilbideak antolatzen ditu. *Robin Moore* (Anne Heche) aldizkari bateko editorea bere bikotearekin helduko da bertara. *Robinek* Tahitira joateko agindua jasoko du eta, ekaitz baten ondorioz, *Quinn*ekin batera irla desertu batean amaituko du...

HORIZONTE FINAL

Zuzendaria: Paul Anderson.

Aktoreak: Laurence Fishburne, Sam Neill, Kathleen Quinlan.

Misio bat burutu ondoren, 2047. urtean *Lewis & Clark* untziko tripulatuzaileei, zazpi urte espazioan galdurik darman *Event Horizon* untziaren erreskatea aginduko diete. Neptuno planetaren ingurutik, norbaitek emerjentziarako seinalea bidali du baina bertara heltzean tripulatuzaileek sorpresa bat baino gehiago izango dute...

CUERNOS DE ESPUMA

Zuzendaria: Manuel Toledano.

Aktoreak: Jason Anthony, Andrew Gallupi, Brie Koyanagi.

Elias Querejetak ekoiztutako filme honetan, New York hirian bizi den lagun talde baten gorabeherak azaltzen zaizkigu, amodioa, sexua, drogak edota janzkerari buruz dituzten kezkek plaza-ratuz. Gaurko gizartearen ikuspegi eroa.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Mujika
guzokia



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errellenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Bere sorreraren 25. urteurrenean, Rectificados Gallastegi bergarar enpresak ISO 9002 kalitate ziurtagiria jaso du. Lan-tegi hain txikietan (11 langile besterik ez dira) ez da oso ohizkoa horrelako errekonozimendua jasotzea baina Armando Gallastegi gerenteak (58 urte) adierazi digunez "etorkizunari aurre egiteko ezinbesteko lan erraminta da kalitatea gaur egun".

G. Zer suposatzen du ISO 9002 kalitate ziurtagiria jasotzeak?

E. Oso harro gaude, gure tamainuko enpresen artean eta artezketei dedikatzen direnen artean ziurtagiria jasotzen lehenetarikoa gare-lako. Honek nolabait gure lana hobetzen goazela eta bezeroei kalitatezko zerbitzua ematen diegula baieztatzen digu. Etorkizunari begira, kalitatea ezinbesteko lan erraminta bihurtu da.


G. Langileei esfortzu handia eskatu die honek?

E. Prozesu luzea eta diru aldetik ere oso garestia izan da, kontutan izan dira gure tamainuko enpresa baten parametroak. Inbertsio fuertea egin dugu inspektzio, neurtze eta entsaiu ekipotan. Oteic Productividad-en aholkularitzaz, urtebete inguru eman dugu honetan eta eguneroko lanarekin konpajinatu behar izan dugu. Langile guztiak inplikatu behar izan dira, egindako ikastaroetan, neurriek norberarengan izango duten eragina ezagutzeko. Dena den, guztiontzat antzeko prozesua izan da; datuen erregistro eta kontrolerako medioen erabilera ezagutzea hain zuzen. Hemendik aurrera, kontrolak amaierarako laga beharrean, akatsak prebenitu ahal izango

ARMANDO GALLASTEGI

Enpresa ugazaba

"Kalitatearen trenean igotzea ezinbestekoa da gaur egun enpresa guztiontzat"



Armando Gallastegiren enpresak zilarrezko ezteiak betetzen ditu aurten.

ditugu. Hori da gakoa.

G. ISOa izateak lan gehiago suposatuko dizue?

E. Baietz uste dugu. Dena den ISOa ez izatekotan, kontrako efektoa eman zitekeen, hau da, lan gutxiago izatea. Baina orain gure lanaren garantia daukagu eta argi dago ondo gertatzen ez denari atek ixten zaizkiola piskanaka-piskanaka. Kali-

tatearen trenean igo beharra dago, fabrikante handi guztiek ISOa esijitzen dutelako gaur egun. Automozioan, esaterako, fabrikanteek izugarrizko erantzunkizuna daukate, istripuak direla eta. Prestijio eta diru aldetik asko dute jokoan eta azken torlojuak norik egiten dieten ere badakite. Beraz, lojikoak da euren hornitzaileei ere kalitatea zaintzea esijitzea.

G. Zein enpresekin lan egiten duzue?

E. Guk piezen artezketan egiten ditugu eta pieza horiek automozioan, makina-erramintan edota elektragailuetan erabiltzen dira nagusiki. Gure bezeroen bigarren mailako hornitzaileak gara eta, besteak beste, Citroen, Renault, Volvo, Mercedes, Fiat, Goratu taldea edota Maycerako lan egiten dugu.

G. Eta orain zeintzuk dira hurrengo helburuak?

E. Bueno, ISOren kontuarekin, etengabeko hobekuntza prozesu batean murgiltzen gara eta hori zaintzen jarraitu behar dugu. Bestalde, laneko arriskuen gaiari eta inguruarekiko baldintzen hobetzeari ekin nahi diegu, europar araudira egokitu ahal izateko. Era berean, Amillagako lantegia txikia eta zahartuta geratu zaigu eta Industrialdera joateko zain gaude.

G. Enpresa txikiak indartsu mantentzen dira?

E. Egoera onean dira, bai. Bizpahiru urteotan nahiko lan izan da. Lana badago eta zenbaitzuk ezin dezakegu hazkunderik izan eskulan kualifikaturik ez dagoelako. Piezen akabatuan, artezketan, milesimetako tarteekin lan egiten dugu eta esparru horretan eskulan kualifikatu gutxi dago. Gaur egun eskoletan ikasleek ez dute apenas rektifikadora ikutzen. B

"ISOak gure lana hobetzen goazela eta bezeroei kalitatezko zerbitzua ematen diegula baieztatzen digu. Ezinbesteko lan erraminta da"

Bergara eta Antzuolako jubilatuek II. Kultur Hamabostaldia antolatu


Martitzenetik hil amaierara arte ekitaldi ugari izango dira

“Beti emon leike pauso bat aurrerago” lemapen II. Kultur Hamabostaldia antolatu dute Bergara eta Antzuolako jubilatuek. Datorren martitzenean hasi eta hilaren 31ra bitartean era askotako jarduerak antolatuko dituzte.

Joan zen martitzenean aurkeztu zuten Bergarako jubilatuen etxean Kultur Hamabostaldia. Gerardo Mondragon San Joxepe Bergarako jubilatuen elkarteko presidente ordea eta Juan Jose Altuna pintorea, hamabostaldia iragartzeko antolatu den kartel lehiaketaren irabazlea, izan ziren bertan. Lehiaketara sei lan aurkeztu dira eta pintore arrasatearra-rena aukeratu du epai mahaiak. Aurkezpen ekitaldiaren ostean, Antzuola eta Bergarako jubilatuek egindako margo eta eskulanen erakusketa zabaldu zen.

“Beti emon leike pauso bat aurrerago” goiburua-ekin, “gure fedea bizi izatera-koan pauso bat gehiago eman nahi dugu” esan zuen Gerardo Mondragonek; “gutako bakoitza zoriontsuago izan eta ingurukoak zoriontsuago egiten laguntzeko”.

Hamabostaldiko ekitaldiei dagokienez, datorren martitzenean, hilak 13, arratsaldeko 7:30etan Miguel Altuna zahar-ean, hamabostaldiko helburu nagusiak azalduko dituzte Antzuola eta Bergarako jubilatuen el-



Altuna Akizu hamabostaldia iragartzeko kartelaren egilea eta Gerardo Mondragon San Joxepeko presidente ordea.

karteetako zuzendaritza batzordeko kideek. Ekitaldian, Luis Mari Bandres Gizarte-kintzako diputatua ere izango da eta Jose Antonio Pagola bikario nagusiak “Pauso berriak jubilatuen fedebizitzan” gaiaren inguruko hitzaldia emango du. Eguas-tenean, bertsolari gazteekin jaialdia izango da 18:00etan jubilatuen egoitzan; egue-nea, toki berean, euskal musika tresnen erakusketa eta demostrazioa Lorentzo Altuberen eskutik, 17:00eta-tik aurrera. Eguakitzean, az-kenik, “Beti geratzen zaigu Paris” antzezlan-ia izango da Antzuolako zine aretoan 19:30etan. Bergaratik Antzuolara joan-etorria egiteko autobusa izango da.

Hurrengo astean, marti-tzenean, hilak 20, Juan Luis

Telleria Kultxako Marketing saileko zuzendariak, “Pauso bat aurrera zoriontsu izate-ko” gaiari buruz jardungo du Miguel Altuna institutuan 19:30etan. Eguenean, An-tzuolako zine aretoan 19:30etan, Antzuola eta Ber-garako ermiten historia izango du mintzagai Imanol Sorondo Añorgako parroko-ak; eguakitzean, Oñatira bi-sita gidatua egingo da arra-tsaldeko 4etatik 7etara An-tzuolatik irtenda; autobusa izango da.

Urriaren 27an, Gonzalo Berzosa Madrilgo Hezkun-tza eta Kultura Kontseilar-i-tzako gerontologoak bolun-tario lanari buruzko herba-l-dia emango du 19:30etan Miguel Altuna institutuan eta eguenean, hilak 29, hainbat gizarte-erakundeta-

ko boluntarioek euren es-perientzia kontatuko dute. Mahaingurua 19:30etan ha-siko da Miguel Altuna insti-tutuan eta honako talde hauetako partaideak izango dira: Nagusilan, Hiruatx, Bergarako Orfeoia eta San Joxepe elkarte. Hamabos-taldiari amaiera emateko, urriaren 31n, zapatua, meza izango da 11:45etan Mila-grosa kapilan, Jubilatuetako abesbatzarekin; 13:00etan amaiera ekitaldia izango da Miguel Altuna institutuan eta 14:30etan herri bazkaria Udal biltegian. Ekitaldian, Maria Jesus Aranburu Gi-puzkoako Diputazioko Gi-zarte Zerbitzuetako zuzen-dari orokorra eta Victoriano Gallastegi eta Mikel Larrea, Bergara eta Antzuolako al-kateak izango dira. B



Guardiako zerbitzua herrian emango dute aurrerantzean botikariek.

ARTXIBOA

Guardia zerbitzua herrian eskainiko dute farmaziek

Datorren eguakitzetik, hilak 16, aurrera

Bergara eta Arrasateko botikek guardiako zerbitzuak herri bakoitzean egin beharko dituzte aurrerantzean eta ez hamabostean behin txandaturaz, orain arte egin duten moduan. 1992. urteaz geroztik, hileko lehenengo hamabostaldian Arrasateko farmaziek eta, bigarren, Bergarako eskaintzen zituzten guardiako zerbitzuak. Halere, herritarren protestak eta bi herritako Udalek egindako

presioa direla eta, Jaurlaritzako Osasun departamentuak hala aginduta, zerbitzu konpartitua bertan behar laga behar izan dute botikariek. Horrela, bada, hil honen 16tik aurrera herritarren batek premia izanez gero, ohiko orduetatik kanpo ez du Arrasatera joan beharrik izango, guardiako zerbitzuak herrian bertan eskainiko direlako.

Bergarako botikariek 1997ko uztailaren 29ko 188

dekretua aintzakotzat hartuta ezarri dituzte ordutegi berriak: astelehenetik eguakitzera: 9:00-13:30 eta 16:00-22:00; zapatuetan: 9:00-13:30 eta 17:00-20:00 eta domeka eta jai egunetan: 10:00-13:30 eta 17:00-20:00. Gainontzekoetan, guardia tokatzen zaion botikaren telefonora deitu eta hogeita minututan atendituko dituzte herritarrak. Gaez, beharrezkoa izango da medikua errezeta eramatea. B

Herriko hainbat kale asfaltatuko ditu Udalak

Bergarako Udaleko gobernu taldea herriko hainbat kale asfaltatzeko lanen adjudikazioa arautuko duen baldintza ple-guak atzertzen dihardu, Udalbatzak onartu eta lanak lehenbailehen hasteko.

Konpondu eta asfaltatuko diren kaleak honako hauek dira: Aranerreak (Burdinartetik gora) Koldo Eleizalde, Ibarburu, Ibarra, Ozaeta, Barsarte eta Amillaga (Pakea ingurua).

Azkenaldian ugariak izan dira kale horietako bizilagunen kexak, bereziki, Aranerreak, Koldo Eleizalde eta Ibarburu bizi direnenak. Aspaldian ez dituzte konpondu eta zorua nahiko hondatuta dago kale horietan. Arazoari irtenbidea topatu nahian, 21 milioi pezeta inguru bideratuko ditu Udalak kaleok konpontzeko. Jose Antonio Etxeberria hirigintzako zionegotziak BERRIGARARI esan dionez, urte amaiera baino lehen egin nahi dira obrak. Bestalde, San Juan auzoko ermita inguruko eremua urbanizatzeke beste 16 milioi pezeta bideratuko dira.

Deco-Textil ZANGITU

Etxerako lenteria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69



GAZTELU BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

Egin berriari buruz jardun zen Martin Garitano martitzenean

Egin egunkariaren ordez sortuko den komunikabide taldeari eta Gabon zahar egunerako kaleratu nahi duten egunkari berriari buruzko azalpenak eman zituen Martin Garitanok, Euskadi Información egunkari-ko zuzendariak martitzenean UNEDen. Areto nagusia jendez bete zen kazetari bergararraren hitzak entzuteko.

Martin Garitanok egunkari berria Eginen semea izango dela eta, beraz, hau baino hobea eta politagoa izango dela esan zuen. Nazio mailako egunkaria izango da, baina tokian tokiko informazioa, hau da, herrietako notiziak jasoko ditu; halere, ez dira edizio ezberdinak egingo. Hiru hizkuntzatan idatziko da: gaztele-raz, euskaraz eta frantsesez; Donibane Garaziko berri lokal bat, esaterako, frantsesez idatzita joan daiteke.

Euskarak lehen baino presentzia haundiagoa izan-

go du; zentzu honetan, kazetari guztiak euskaraz idazteko gauza izango direla esan zuen.

Gehigarriak bultzatuko dituzte eta diseinua edo egunkariaren itxura asko zainduko dute: egunkari berriak lehengo linea editoriala izango du, baina notiziak kontatzeko modua ezberdina izango da, argazkiei in-

portantzia haundiagoa eman-
nez.

Bestalde, martitzeneko ekitaldian, Anaje Narbaizak komunikabide talde berria martxan jartzeko behar diren 1.000 milioiak batzeko Baietz fundazioak bultzatu duen kanpainari buruzko zehaztasunak eman zituen. Bergaran 17 milioi pezeta batu nahi dituzte. B

Luisa Agirrezabalek 102 urte betetzen ditu gaur, urriak 9

Luisa Agirrezabalek, Bergarako amonak, 102 urte betetzen ditu gaur, urriak 9. Herriko zaharrena izan arren, gazte eta sasoiu dago oraindik. Makina bat opari jasoko ditu seguruenez bere urtebetetze egunean. Urte askotarako!

Xabier Aizarna Angiozarren lurperatu zuten astelehenean

Xabier Aizarna, Gipuzkoako Diputatu Nagusi eta batzarretako buru izandakoa, astelehenean lurperatu zuten Angiozarren, bere amaren herrian. Zapatuen hil zen 76 urte zituela. Angiozarko hilerrian hainbat alderdikide (EA) eta diputatu bildu ziren.



Martin Garitano kazetaria eta Anaje Narbaiza Baietz fundazioko kidea.

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

Fiskala
Lanekoa
Kontablea
Aseguruak

TG AHOLKULARITZA

TBG. Ander Alberdi Lete / Zuzenbidean lizentziatua

Matxiategi 36, behea
20570 BERGAR Gipuzkoa

Tf. 943 76 90 83
Faxa 943 76 92 04

TRANSBER

Era guztietako kargak
Iraulkiak-Grua

Matxiategi 36, behea BERGARA
Tf. 943 76 90 83. Faxa 943 76 92 04



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31

Tf. 943 76 20 02

BERGARA

Berrigara

338 zenbakia.
1998ko urriaren 9a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
E.mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: **JARDUN Elkarte**

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak: Estepan Plazaola, Alex Labaien.
Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodríguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Ellexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Onati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5 100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ensko Jaurritzakako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: **Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).**

KANALA EDO IBAIA

Joan zen hilean, Zubittako auzotarrek deitu ziguten, zubi ondoko zuhaitzak botatzen ari zirela esateko. Bertara joan eta, harrituta gelditu ginen, esandakoa egia zela ikusi genuenean: hamar-hamabi urteko altxa eta okanondo bat ebaki zituzten Udal langileek.

Kanalizazio lanen ondoren, Zubittako ibarrean altxak poliki-poliki gorpuzten ari zirela eta, pozik geunden, ibaia bere itxura hartzen eta edertzen baitzihotan, altx, txopo, sahas eta ahateak direla medio. Gainera, Udala ildo horretatik jarraitzeko asmoarekin zeterrelakoan geunden, baina itxura denez, denak ez dute hori pentsatu. Ikusi besterik ez dago azken "ekintza" horren emaitza.

Azken bi urteotan okanondoa izugarri polita egon izan da udaberrian eta aurtan ere ale asko izan ditu. Zubiko belarrak konpontze- ra joan direnean, zuhaitza ere "konpondu" beharrean

izan dira; eta zer bururatu? Ba azpi-azpitik ebakitzea! Berriz ere, "garbitasunaren" aitzakiarekin eta estetikaren kontzeptu atzerakoi bategatik, herriko ondarea izorratzen. Bergaran eta Zubittan ere, txukundu beharreko gauza ugari dago. Txukundu nahi izanez gero, zubiak berak ere hor ditu erdi zintzilik uralitzako tubo narratzuk, eta erreka zuloan ere benetako "zabor" ugaria eta "bistoso" dago landareen kontra ekin aurretik.

Erreka landaretzarik gabe ez da erreka, kanala baizik, eta prezio berdinean nahiago dugu erreka bat bere osotasunean. Ibaietako landaretza errespetatzeko kulturarik hemen ez dagoela nabaria da, eta zoritxarrez, motozerra zaleen artean ere ezjakintasuna da nagusi. Bestalde, garai honetan, tamalez, Zubittan ere zuhaitzak ez daude soberan, faltan baizik!

Zubi inguruaren osagarri politikak izan zitezkeen okanondoa eta altxa "konpondu" dituzte. Penagarria

benetan. Jakin badakigu Udalean badirela gauzak ondo egiten dakiten tekniko eta langileak, baina...

Horrelako atzerapausoak tamalgarriak dira. Sarritan komentatu izan dugu gai hau Udalarekin, eta gurekin bat datozela adierazi digute. Orduan..., noiz arte jarraitu behar dugu honelako txikizioak ikusten? Noiz eta nork egingo du herri honetan ingurugiroko ondasunen babesaren antolakuntza? Noiz eta nork kontrolatuko ditu Udaleko "inkontrolatuak"? Noiz eta nork jasoko du azken ekintza tamalgarri honen erantzukizuna?

Galdera hauei guztiei Udalak erantzuteko zain gelditzen gara.

Mendia Bizirik

tira biraka: alex ugalde



■ atrebentzia ezpada


■ bai, esan!

Prensa larrosean agertzen diren pertsonaietatik zein da erakargarriena eta gutxien gustatzen zaizuna?



Koro Belio

Isabel Preysler eta Lecquio kondea ezin ditut ikusi ere egin, amorrua diet. Eta erakargarriena, Alejandro Sanz kantaria beharbada, asko gustatzen zait.



Jose Errasti

Ez dut prentsa hori irakurtzen eta telebistan egoten diren saioak ere ez ditut ikusten. Baina bueno Mar Flores ez zait gustatzen eta Jesulinek jatorra ematen du.



Rosario Jimenez

Niri Miguel Bose izugarri gustatzen zait, oso lasaia, bihozbera dela iruditzen zait. Eta txarto asko jausten zait, Isabel Preysler adibidez.



Jabier Larrañaga

Jokoz kanpo harrapatu nautue. Gutxi jarraitzen ditut gai horiek baina bi esatearren Anne Igartiburu ondo jausten zait eta Marlene Murreau ez zait gustatzen.



Ane Agirreolea

Famosoetatik Ana Obregon ezin dut ikusi ere egin, ez zait batere gustatzen, faltsua da. Eta bueno, Alejandro Sanz berriz pertsonaia erakargarria da.



Iñaki Leizeaga

Ez dut prentsa larrosa deritzana jarraitzen. Hor ez dago inolako pertsonaia erakargarririk. Julio Iglesiasen inguruan adibidez gehiegizko muntaia dago.

Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Mikel Sanchezek laga digu mezua aste honetan BERRIGARAKO erantzungailuan. Mikel zapatuan Jam-en izandako rock kontzertura joan zen eta agindutako orduan ez hasteagatik egin nahi du protesta. Bere esanetan, ez da rock kontzertuetan ordutegia errespetatzen ez den lehen aldia eta antolatzaileei edo musikariei kontu handiagoz jokatzeko eskatu nahi die. Zapatuan ordubeteko atzerapenarekin hasi ei zen kontzertua eta horrek ikusleenganako errespeto falta nabarmena erakusten du Mikelen iritziz. Beraz, hurrengo batean ordutegiari bere garrantzia emateko eskatu nahi du Mikelek.

■ ikuspuntua: **jose angel mikeo**

Euskararen mendea

Bati baino gehiagori bururatuko zitzaion, izenburua irakurtzean, bukatzeaz dagoen mendea izan dela gure hizkuntzaren mendea: XX. mendearen hasieran Euskal Herriko lurralde geheienetan biztanle gehienek erabiltzen zuten hizkuntza izatetik etxera zokoratu, ahoetan mutu gelditu eta eskolatik at gelditzera eramana izan da, horren arrazoitzat hainbat azalpen eman direlarik.

XX. mendea izan da, era berean, euskaldungoak, hizkuntza zein euskal kulturaren oinordekoak garenok, gure egoeraz jabetu eta etorkizunarako bideak urratzen hasi garen mendea. Mende honetan sortu dira Euskaltzaindia, Ikastolak, euskalduntze eta alfabetatze-erakundeak, heldu da



euskara Unibertsitateira, normalizatu da idazkera, izan du literatura zabalpen handiena, hedatuz doa hezkuntza sistematan...


Azken 15 urteotan garrantzizkoa den beste gertakizun bat ere suertatu da euskalgintzan: herrietako euskal taldeak sortu dira, hizkuntza nazioanaren normalizazioa bultzatzeko. Herrietako talde hauek uharte txiki bezala sortu baziren ere jadanik artxipiologo bilakatu dira eta bere eragin kulturala nabarmena da: herrietako aldizkariak, irratiak, telebistak, ekintza kulturalak... atzetik dituzten bazkideek ematen dien indarra ez delarik baztertzekoa.

Hala ere, normalizazioaren abiadura astiroegi doa eta astirotasun horrek martxan dagoen prozesu guztia arriskuan jar dezake. Egoera honi aurre egiteko euskalgintzan diharduten 54 erakunde elkar hartuta, Kontseiluan batuta, proposamen zabalak egin nahi dute datorren mendeari begira: Akordio Sozial eta Politiko zabalak bultzatu nahi dira, indarrak batuz eta euskalgintzaren barne kohesioa areagotuz. Abenduan 20 urte beteko dira "Bai euskarari" kanpaina egin zenetik. Orain gaurko erronkei erantzun behar diegu eta datozen bi hilabeteetan denok murgilduko gaituen prozesu handia gauzatzea nahi da, urtea bukatzerako "XXI. mendeko akordioa: BAI EUSKARARI" Euskal Herri guztiaren akordioa izan dadin.

Izan ere, XXI. mendea izango baita euskararen mendea. B

■ asteko menua: txuringo jatetxea

■ bergarako gordailutik



Legatz betea

JUAN TXO ALDALUR
Txuringo jatetxeko sukaldaria

PRESTAKETA

Betegarria egiteko:

- Barazkiak, perretxikoak, langostinoak eta izokina zatitu.
- Oliba oliotan barazkiak potxatzen ipini eta gutxika-gutxika perretxikoak, langostinoak eta izokina gehitzen joan.
- Guztia koñakarekin flanbeatu eta, eginda dagoenean, irin eta esne piskat gehitu loditzeko; bukatzeko, hozten laga.

Saltsa egiteko:

- Kipula eta piper berdea potxatzen jarri eta tomate eta langostino buruak gehitzen joan.
- Guztia bospasei minutuz su bajaran eduki.
- Ardo zuria, arrain salda, piperbeltz zuria eta gatza gehitu.
- Guztia ondo birrindu eta saltsa iragazi.
- Legatz solomoak erditik zabaldu eta betegarria sartu.
- Gatz piskat bota eta legatz solomoak azala gorantz dutela ontzi batean olio piskatekin ipini.
- Labean 180 gradutara hamar minutuz eduki.
- Labetik atera eta ontzi batean ipini; mahaira atera aurretik saltsa piskat bota gainetik.

OSAGAIAK (4 laguntzat)

Betetzeko:

- 12 langostino
- 200 gramo izokin
- 200 gramo perretxiko
- Kipula erdia
- Piper berde erdi
- Bi koilarakada hirin
- Baso erdi esne
- Oliba olio
- Gatza
- Piperbeltz zuria
- Koñaka

Saltsarako:

- Kipula erdia
- Piper berde erdi
- Tomate heldu bat
- Langostino buru batzuk
- Arrain salda
- Ardo zuria

■ adituen esanetan

Gatz iodatua

BITTOR RODRIGUEZ, *dietista eta elikagaien teknologoa*

Gatz iodatuaren garrantzia bere mineral edukinean datza, kloroa eta sodioa izateaz gain, iodoa baitauka. Mahaiko gatzak, itsas jatorria duenean, iodoa izaten du, itsasoan batipat aurkitzen delako mineral hau, horregatik itsasotik datozen elikagaiak ere iodoa dute, hala nola arrainek, algek, moluskoek, krustazeoek... Iodoaren funtzio nagusia erregulatu da, hormona tirodoen osagarri baita. Hormona hauek metabolismoaren erregulazioan parte oso garrantzitsua daukate, eta iodoa falta bada erregulazio hau ez da egokia izango, hormonak ez baitira ondo eraikitzen.

Iodo faltagatik bozio hipotiroidea agertu daiteke, eta iodo eskasia den tokietan, adibidez itsasotik urrun bizi diren eta arrain kontsumoa txikia den herrietan endemikoa izan daiteke gaixotasun hau. Horregatik gaur egun merkatuan saltzen den gatz gehiena iodatua da, itsas gatza bada berez edukiko du iodoa, eta ez bada itsas gatza artifizialki iodatua egon daiteke. Baina Euskal Herrian ez daukagu alde horretatik arazorik, itsas produktu ugari eta kalitatezkoak baititugu. Esan beharra dago gatzaren zaporea eta beste propietateak ez direla batere aldatzen iodatua egoteagatik. **B**

BI APAIZ ALKATEARI HARRIKA

Imanol Sorondo



txeberriatar Joan eta Oxirondo eta Antzuolan zerbitzen duen Aristitar Iñazio

apaizak dira, eta iluntzeko hamarretan 1.648.eko ekainaren 4an gaude. Harriak bota dizkiote Arte-kalean alkate den Elkorobarrutiatar Martini; honek ez daki nortzuk izan diren, baina batzuen laguntzarekin Masterrekara joan da jaurtitzailen bila, eta han bi apaiz topatu ditu. Iñaziok oraindik harri batzuk dauka eskuetan. Alkate jaunak esan die bere etxeetara eramango dituela; apaizak, ezetz, lehenago utziko dituztela biziak beren etxeetara alkatearen laguntzarekin joan baino; eta zarata eta hasarrea hasi dira. Horrela Masterrekako jendea leihotara atera da. Orain Iñaziok asto beltzarenak esan dizkio alkateari: aginte makilari esker ez dizkiola hamar estokada sartzen, gizona baldin bada uzteko makila eta nahi duen tokira joango direla; gainera, ezpata kendu nahi izan dio alkateari. Masterrekako batzuk, leihotatik hori dena entzun eta ikusi dutenean, jeitsi dira alkateari laguntzera, eta Iñazio Bergarako espetxean sartu dute; bidean, desafioa eta iraina ugari, alkatea hiltzeko meatxua tartean. Juan, bitartean, beste bide batetik joan da. Alkateari laguntzeko hiru lekuko azaldu dira: Arindar Antonio, 23 urtekoa, Amiletatar Lorenzo, 30ekoa, eta honen morroi den Zupidetar Andres Gillen.


Biharamunean, S. Pedroko mai-sua eta gai horretarako komisarioa den Agirretar Martinek eta alkate jaunak idatzi bat izenpetu dute iskribuaren aurrean, Iñazio etxera bidaltzeko, hemendik ez ateratzeko baldintza eta fidantza baten ordainketarekin; gainera, sei egunen buruan Gotzaindegian egingo zaien auzira azaldu beharko dute, bai berak eta bai Etxeberriatar Joaneke ere.

Idatziak ez digu esaten zergatik ekin zioten harrika alkateari. **B**



Saharako lurraldeetan

Amaia Zabaleta Baserriko Emakumeen Elkarteko (EBEL) kide bergararrak Europako emakumeek Saharako emakumeekin batera egin duten **elkartasun topaketan** parte hartu du. **Emakunderen** bitartez, Euskal Herriko 40 emakume izan ziren iraileko azkenengo astebukaeran saharaiuen *27 de febrero* kanpamentuan, Algeriako lurraldeetan. Han egindako kongresuan (110 partaide izan ziren denera) bertako emakumeen egoera eta laguntasunerako bideak aztertu ziren. Era berean, saharaiuei beharrezkoa zaien materiala eraman zuten. Bergaran burututako kanpainen bulegoko materiala eta garbitasun pertsonalerako tresnak batu ziren eta dagoeneko materiala han dago. Orain, solidaritaterako bideak jorratzen jarraitu behar...



Perretxiko ikusgarriak

Udazkena perretxikotarako garairik aproposena daukagu eta inguruko mendietan perretxiko biltzaile ugari izaten da fetxa hauetan. **Alfonso Caballero**k hasiera ezinhobea eman dio perretxiko denboraldiari, izan ere argazkian ikus daitezkeen ondoikusgarriak jaso zituen aurreko astean **Aramaio aldean**. Handienak **1,090 Kg**.ko pisua eman zuen eta ondorengoak **630 gr.**takoa. Danok Bat elkarteko lagunekin ondo nahaski ederra jateko asmoa zuen Alfonsok. On egin!!



Marmitako bikaina

Gure Ametsa elkarteko **Javier Ilzarbe, Donato Ormazabal eta Pedro Rico** hirukoteak emaitza bikaina lortu zuen Lekeitioko Resurreccion Maria Azkue Ikastolak joan zen irailaren 19an antolatutako **Euskal Herriko XXI. Marmitako Txapelketan**. Guztira, Euskal Herri osoko **138 elkarte** izan ziren lehian eta sukaldariek Lekeitioko portuan ekin zioten euren errezetak prestazeari. Hiru bat orduz lanean izan genituen Gure Ametsakoak eta azkenean 17. tokian sailkatu ziren. Eguraldia lagun, primerako eguna pasatu zuten. Txapelketari amaiera emateko 1.300 lagun bildu ziren Kiroldegian egindako marmitako bazkarian. Chef bikainak bergararrak!!

BOLINTXO KIROLAK

*Bolintxo Kiroletako
Udako Zozketako irabazlea
Aitor Salaberria izan da.*

*Neguko Zozketarako
txartelak datorren astetik aurrerako
erosketekin batera banatuko ditugu
eta 1999ko urtarrilaren 4an
zozketatuko da
30.000 pezetako
erosketa txartela.*



Adi!

*Aurtengo Behobian parte hartzeko izena Bolintxon ematen baduzu,
korrikarako jantzietan eskaintza berezia egingo dizugu. Ibargarai 10. 943 76 38 32*

E.H.

Euskal Herritarrok

Lurraldetasuna

Autodeterminazio eskubidea

Bai euskarari

Amnistia

Alde hemendik

Gizarte soldata

35 ordu

Eman botoa E.H.ri

kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkarte, **ANTZUOLA**. **Kazetaria:** Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Kristina Romero **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 23 zenbakia. 1998ko urriaren 9a.

Lantegiek ez dute handitzeko aukerarik herrian

Zoru industrialik eza, etorkizunean arazo larria izan daiteke

Azkenengo urte honetan enpresen arduradunak, auzokideak, merkataritxikiak, tabernariak, kirol eta kultura taldeak, ekologistak eta beste talde batzuk bildu izan dira Udaletxean herriaren egoerari buruz berba egin eta etorkizunaren inguruan eztabaidatzeko. Bilera horiek Antzuolako Udalak antolatu zituen arren, Arrasateko LKS Ingenieria enpresako teknikariek zuzendu dituzte. Bileren helburua Udala berrigite ari den Antzuolako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak ahal den egokien burutzea litzateke.

Bileren ostean LKSko teknikariek txostena aurkeztu dute, Udaletxean bildutako iritziz eta ideia guztiekin, Udalak eztabaidatu eta herrian jakitera eman ditzan. Valen Moñuxek azaldu digunez, "laster izango da horretarako bilera eta txostenaren inguruan egingo dugu berba; hala ere, hau txosten bat baino ez da eta erabakiak oraindik aztertu egin beharko dira".

Bilera horietan hizpide izan den gaietako bat herriak duen arazorik larrienetakoaren (txostenaren arabera) inguruan izan da: zoru industrialak. LKSko teknikariek txostenean jaso dutenez "zoru industrialak, herriaren etorkizunerako arronkarik kritikoena izan daiteke. Oso lur gutxi dago eta egokitze lan handiak egin behar dira; ondorioz, lurra garestia irtengo litzateke". Dirudienez, bilera horietan bildu zirenen artean bi iritziz nagusi

situ ziren. Batzuen ustez "Antzuolak oinarri ekonomiko barik erakargarritasun gutxi dauka; hori dela eta, enpresak herrian bertan garatu beharko lirateke". Beste batzuen iritziz, "lur gutxi dago eta zoru industrial gehiago lortzeko aukerak oso zailak dira; hori dela eta, herriak

bestelako erakargarritasun batzuk izan behar ditu eta etxebizitzaren eskaintza handitu".

Valen Moñux Udaletxeko aparejadorearen iritziz "argi dago leku gehiago bilatu behar dela baina aukera gutxi dago eta oso garestiak dira". →



"Talleres Antzuola" k 30 bat urte daramatza Kalegoian.

■ ■ ■
Lur gutxi dago eta zoru industrial gehiago lortzeko aukerak oso zailak dira
■ ■ ■

Industrialdearen aukerak

Txostenean jasotzen denez, indarrean dauden Arau Subsidiarioek Zupideko inguru aurreikusten dute zonalde industrial bilakatzeko. Baina San Blas-Basalde ere aipatu izan da azken bolada honetan. Hala ere, dituen topografia arazoek eta Abiadura Handiko Trenaren ibilbideak beste leku batzuk aztertu beharra dakarte. Beraz, herrian gelditzen diren aukera bakarrak Goizper aldea, Matz-Erreka aldea eta Igeribar Behekoa baserriaren inguruak dira.

Lur eskasiaren eraginak

Azken bolada honetan herriko hainbat enpresa txikiak duten leku eskasiaren arazoa zabaldu da herrian. Jakin dugunez bi dira arazo hori saihestu nahian lanean hasi direnak. Batetik "Talleres Antzuola" dugu eta bestetik, "Talleres Alzas". Bi enpresa hauek urteak daramatzate herrian lanean eta biek herriko beste enpresa handiago batzuekin lan egiten dute.

Eva Alzasekin berbetan izan gara bere anaiekin batera lantzen ari den ekimenaren inguruan. Evak kontatu digunez, oraingo tailerra handitzeko eskaera egin dute Udaletxean, etxe azpia txiki gelditu zaie eta. Hala ere, oraindik ez dute erantzunik jaso eta ezezkia balitz, beste nonbaitera mugitu beharko liratekeela azaldu digu, lehen ere Bergaran aritu baitziren leku bila.

"Talleres Antzuola" k ere antzeko arazoa dauka. Juan Cruz Gezalagak esan digunez "leku barik gelditu gara. Geroz eta pieza gehiago egiten ditugu



"Electro Mecanica Alzas" izango da lantegi berria.

eta jadanik ez gara hemen sartzen. Gainera, garraiorako arazo handia daukagu hemen. Egunero zortzi bat kamioi etortzen dira eta ez dago lekuri maniobratzeko ez eta zamalanetarako ere. Askotan bidea ez mozteagatik kamioiak lantegitik urrun gelditu behar izaten dira eta geuk piezak karretilekin aterara".

"Talleres Antzuola" n sei lagun dade lanean eta automozioa, nekazaritza eta elektrifikaziorako pasadoreak egiten dituzte. Produksioa Espainia osoan saltzen dute eta oraintsu Frantzia eta Portugalera ere esportatzen dute. Juan Cruzek azaldu digunez "joan den astean Ferroforma ferian izan ginen eta Argentinako enpresa batekin harremanetan jarri ginen eurentzat ere lan egiten hasteko". Gauzak horrela gerenteak argi dauka dauden lekuan ezin dutela jarraitu.

Ekimen berriak

Eva Alzasek azaldu digunez, euren asmoa enpresa berri bat sortzea litzateke. "Orain arte makina industrialentzako motorrak konpondu ditugu, baina gure asmoa —eta jadanik hortan hasi garamotorrak egitea da. Hiru prototipo egin ditugu eta erosleak ere baditugu. Matz-Erreka eta Fabricante de Grupos Hidráulicos enpresentzat izan dira orain arte egin ditugun motor berriak, baina orain Madrileko beste enpresa batentzat proiektu berri bat egiten hasi gara. Horrez gain, korrante zuzeneko motore bat ere hasi gara lantzen".

Ekimen hauek duten arazorik larriena herrian dagoen zoru industrial eskasia da. Evak kontatu digunez, euren etxea eta tailerra zoru industrialean erakita daude eta "horrek nolabait aurrera egiteko aukera ematen digu, hala ere, arazoa larria da. Antzuola herriarentzat eta herrikoentzat lan egitera ohitu da, baina hemen ezin bada lantegi berririk ireki eta daudenak ezin badira hasi, kanpora joatera bultzatuko gaituzte, eta herriaren etorkizunari begira ez litzateke ona izango".


■ ■ ■
*Antzuola herriarentzat eta herrikoentzat
lan egitera ohitu da*
■ ■ ■

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatua eta barnizaketa •



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditenteak bideratzen ditugu

AEK Antzuolara iritsi da

Bergarako Akulu AEK euskaltegiak ikasturte honetan Antzuolan euskarazko klaseak eskaintzea erabaki du. EGA eta gurasoei zuzendutako euskara eskolak emango lirateke. Kristina Pavo arduratuko da eskolak emateaz.

Nolatan AEK Antzuolan?

Orain dela bi urte ere bi guraso talde egon ziren eta aurten ere hori egin nahi dugu. Horrez gain, EGako klaseak ere eskainiko ditugu.

Nolakoak izango dira gurasoei zuzendutako eskolak?

Euskaraz ez dakitenak euskalduntzea eta dakitenak alfabetatzea da helburua. Askotan gurasoek arazoak izaten dituzte euren seme-alabei eskolako lanetan laguntzeko. Ikastaroekin lan hori erraztu nahiko genuke, beste gauza batzuen artean.

EGako klaseak norentzat dira?

Gaur egun EGA beharrezkoa da lan munduan sartzeko. Klaseak komenigarriak dira. Herrikoak kanpora joan behar dira eta herrian aukera hori eskaintzea aproposa dela uste dugu.

Zein izango da ordutegia?

Momentuz ikasleak bildu eta eurei

egokien datorkien ordutegia aukeratu genuke. Ikasturte osoko ikastaroa litzateke.

Non eman daiteke izena?

Urriaren 2an amaitu zen izena emateko epea, baina luzatzea erabaki dugu, jendea animatu dadin. Izena emateko Udaletxera jo daiteke, urriaren 16a baino lehen.



Kristina Pavo

Intsumiso Eguna 98

Antzuolako intsumisoen taldeak Uurbilen ospatuko den Intsumiso egunera joateko deia egin du. Bosgarren urtez ospatzen den jaia urriaren 11n, domeka, izango da, baina zapatuan, Blues Torpes, Ekon, S.A. eta Latzen arituko dira.

Domekan, berriz, hainbat ekitaldi egongo da egun osoan zehar eta amaitzeko beste kontzertu handi bat: Anestesia, Alaiz eta Maider, Xuia Reagge Band, Habeas Corpus eta Xenreira.

Ipuin kontaketa

Oihulari klown taldeak umeentzako ipuin kontaketa saioa eskainiko du zapatuan, urriak 10, herriko liburutegian. Emanaldia arratsaldeko 18:00etan izango da.

Antzerkia jubilatuentzat

Herriko helduentzat antzerki saioa izango da datorren eguakitzean, urriak 16. Antzezlanaz zumaier talde batek eskainiko du, zine aretoan, arratsaldeko 19:00etan.

Argazki lehiaketa

Urriaren 17an, zapatuan, banatuko dira IV. Argazki Lehiaketako sariak, Udaletxean, eguerdiko 12:00etan. Ondoren aurkeztutako argazki guztiekin osatuko den erakusketa irekiko da.

Gusturako ikastaroak

Udalak marrazkigintza, eskulanak (portzelanaren imitazioa eta eztainua lantzea), egur taila (zapatu goizetan) eta keramika ikastaroak antolatu ditu. Ikastaro bakoitzak 40 ordu izango ditu eta 3.000 PTA. kostako da. Izena emateko Udaletxera jo daiteke, urriaren 23a baino lehen.

Behobia-Donostia

Behobia-Donostia lasterketara joateko autobusa ipini nahi da. Interesatuak izena eman urriaren 18a baino lehen, Larrea eta Surpe tabernetan.

Gazte mailako futbol taldea martxan



Hauetxek izango dira 98-99 denboraldiko Juan Jose Botek entrenatzen duen gazte taldeko jokalariek. Lehenengo hiru partiduetan garaipena lortu ez duten arren, talde sendoa osatzen dute. Bihar, zapatua, 18:00etan Eibartarrak taldearen aurka jokatuko dute Unbeko futbol zelaietan.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Mokitak eta tapizatuak

Jose M. Ugalde, Jubilatuen Elkarteko lehendakaria

“Udaletxia aginduta dago zerbiziua ipiñiko doskula”

Abuztutik hona Jubilatuen Elkarteak ibili dira tabernako arduradun lanetan. Aurretik egon zen arduradunak lokala laga ondoren 15 egunez itxita egon zen eta orain, berriz, tabernari berrri baten bila dihardu Jubilatuen Elkar-teak. Jubilatuen tabernaren arduradunak Antzuolako Udalarekin sinatzen du kontratua, nahiz eta aukeratzekoan pisu haundiagoa izan Jubilatuen Elkarteko Juntaren iritzia. Udalak ez du inolako kanonik kobratzen baina tabernako mantenuko gastuak, altzariak, makinak eta tresnak, argia eta berogailuaren gastuak tabernariaren kargu dira.

marrak dien bati eta biri baiño gehixagori esan jeu baiña eztabe nahi.

Jatetxea izatea oztopoa da jenderik ez aurkezteko?

Kezka pixka bat emon leixiko hartu bihar dabeneri, baiña beste aldetik dirua bihar da. Kanpoko jentia ezpadabil diru gutxi dago hor. Jubilauok prezio merkiaguk dittugu eta sartu bihar da bestelako jentia dirua emoteko eta jentia etortzeko modu bat da jatetxia egotia.

Arduraduna aurkitzeko esperantza izango duzue, ezta?

Oindio bateren bat badago eta kondiziñuak jakin eta kontratuaren zirriborua ikusi biharko dogu.

Zer aukera dauka tabernak beste-la funtzionatzeko?

Udaletxia aginduta dago zerbiziua ipiñiko doskula. Obligaziño bezela dauka hartuta, jubilatuen udalaren zerbiziua da eta. Aukeren artian, izen leike udaletxiak pertsona bat hartzia egunian ordu batzutan han egon dein, baiña udaletxiandako oso garestixa da eta guretako zerbiziua eskasa litzake.

Zenbat denbora daramazu lehendakari?

1990ian sartu nitzan eta harrezke-ro bi-hiru urtetan ipiñi dogu tabloian ia iñor presentatzen dan, baiña ezta iñor presentatzen.

■ ■ ■
“Batzordeko zortzi lagunak ibilli gara tarteka tabernan”
■ ■ ■



Zela funtzionaten du jubilatuen tabernak?

Batzordeko zortzi lagunak ibilli gara tarteka tabernan. Udaletxiarekin geratu giñan atzenengo billeran, geuk zerbiziua emongo giñuala, abuztuaren erdittik aurrera, arratsaldetan zabaldu eta jubilauak egon deittien ordu bi eta erdietatik zazpi eta erdiak arte. Baiña esan giñuan ezin zeikiela betirako hola jarraitu eta epe bezela ipiñi giñuan iraila azkenera arte. Baiña hillan azkena aillegau da eta ezta iñor agertu.

Zer dela eta ez da inor aurkezten?

Tabernia da eta taberniak badakizu zer daukan... Zerbizio publikoko gauza honek hain atsegiñak ezte askondako behintzet. Eta langabezi kontu asko esaten da baiña hainbeste bihar eztao. Bestela bi agertu die baiña eren artian ezte arreglau eta atzera egin dabe. Herrikorik ezta iñor agertu. Geure iritziz egoki xa-



Jose Marik 8 urte daramatza Jubilatu Elkarteko lehendakari.

GOROSTI
Taberna
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

LEKU-BERRI
MERENDEROA
Janariak eta edariak
Tf. 943 76 60 94

igor eta Txomin
Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxo... estaldurak.
Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.
ANTZUOLA BERGARA
☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98

ANTZUOLA
Apaintetak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40

Hauteskunde kanpaina martxan

Herrian ere alderdiak botoa lortzeko lanetan

Ohizko kartelen pegatzeak hasiera emango dio gaur, eguakitza, datorren urriaren 25eko hauteskunde autonomikoen kanpainari. Badirudi ETaren su-etenak hauteskundeak markatuko dituela eta dagoeneko alderdi ezberdinak lanean dira boto-emaleak erakartzeko. Herrian ere jende dexente mugitzen da kanpainaren inguruan.



ARTXIBOA

Bergaran
12.909 lagunek
izango dute
urriaren 25ean
botoa emateko
eskubidea.

Azken hauteskunde autonomikoak 1994ko urriaren 23an egin ziren Euskal Autonomi Elkartearen. Orduan jasotako emaitzen arabera honela banatu ziren Gasteizko Legebiltzarreko 75 eserlekuak: Eusko Alderdi Jeltzaleak 22 parlamentari ditu, PSE-EEK 12, Herri Batasunak 11, Partido Popularrak beste 11, Eusko Alkartasunak 8 eserleku ditu, IU-EBk 6 eta, azkenik, Unidad Alavesak 5 ordezkari dauzka Gasteizen. Gaurtik eta bozketa egunera arte alderdi guztiak emaitzak hobetzeko lanetan izango ditugu eta dagoene-

ko alderdi bakoitzak bere estrategia ondo baino hobeto zehaztuta dauka. Kanpainari hasiera eman baino lehen hauteskundeek zeresan ugari eman dute. Lizarrako akordioak eta ETaren su-etenak bakea, Estatutua, autodeterminazioa, negoziazioa edota fronte aberzalea eta espainolistaren arteko bereizketari buruzko eztabaida piztu du gizartean. Badirudi oraingo hauteskundeetan bestetan baino zertxobait gehiago dagoela jokoan. Momentuz, orain dituzten eserlekuak gutxienez mantendu nahi izango dituzte alderdiek.

Kartelak pegatzen

EAJk, ohiturari jarraituz, kartelen pegatzearekin kanpainari hasiera eman dio. EAJren leloa aurtengo kanpainan "Gure esku dago" izango da. Mikel Lete Bergarako EAJko presidenteak azaldu digunez, "inkestek oraingo parlamentari kopurua mantendu edo bat galduko dugula diote baina ni optimista naiz eta beharbada bat gehiago lortuko dugulakoan nago. Gipuzkoan 6 ditugu eta interesgarria litzateke 7.a lortzea, kontutan izanda gainera gure zerrendako 7.

tokian asko balio duen gazte bat, Markel Olano, dagoela". Leteren ustetan datozenak hauteskunde bereziak dira; "su-etenarekin irekitako prozesuaren ondorioz alderdi abertzaleak sendotuta irtengo direla uste dut. Oraingo egoera alderdi abertzaleen onerako da eta Legebiltzarreko gehiengo abertzaleen esku egotea garrantzitsua ikusten dut, kontrakoa

gertatzekotan Madriletik horren irakurketa politikoa egin ez dezaten". EAJk ekitaldi politiko bakarra egingo du Bergaran kanpainan zehar: Joseba Egibar Gipuzkoako zerrendaburua eta Nuria Lopez de Gereñu (zerrendako bosgarrena) Miguel Altuna Institutuko areto nagusian izango dira urriaren 21ean, arratsaldeko 8etan.

Kanpainaren atarian, Euskal Herriarrok taldearen aurkezpena egiteko zen atzo Bergaran, UNEDeko aretoan. Datorren zapaturako, urriaren 17rako, bizikleta martxa iragarri dute, arratsaldeko 6etan. Amaitutakoan ekitaldi bat izango da Plazan. Urriaren 23an, berriz, Plazan beste ekitaldi politiko bat egin-

go da, oraindik ere etorriko diren alderdiko ordezkariak zehazteke dauden arren. Era berean, kanpainak irauten duen bitartean, Bergarako Euskal Herriarrok taldeak bere programa zabal-

Kanpaina hasi baino lehen, Lizarrako akordioak eta ETaren su-etenak bakea, Estatutua, negoziazioa edota autodeterminazioaren inguruko eztabaida piztu dute

duko du auzoz auzo. "Konponbide garaia da" lema erabiliko du Euskal Herriarrok taldeak kanpainan zehar. Gaur ostirala, herriko alderdikideek kartelak pegatzeari ekingo diote kanpainari hasiera emateko. Botoa korreoz eman ahal izateko zabaldu duten bulegoan lanean izan da Iñaki Ibabe eta berak esan digunez mugimendu asko izan dute egunotan; "partaidetzak gora egin dezake urriaren 25ean baina ez nuke emaitzen inguruko pronostikorik eman nahi. Ikusi behar orain zabaldutako prozesuak zelako ondorioak dituen... Kanpainak lehen besteko indarra duela uste dut baina gehienok botoa aurrez erabakita izaten dugu normalean".

Alderdikideen laguntza

"Herri aurrerakoia guztiontzat" izango da Eusko Alkartasunak hauteskundeetan plazaratuko duen mezua.

Kanpainari begira, Bergarako Alkartetxean orain egun batzuk hasi ziren alderdikideak lanean. Juanita Otaño Bergarako EAKo presidentek esan digu-


nez, "goizez eta arratsaldeztan mugimendu gehiago izaten dela. Baina bai, jende dexente mugitzen da herri mailan ere hauteskundearen inguruan. Nik uste dut udal hauteskundeetan eta autonomikoetan egin beharreko lana antzekoa dela, ez dago alde handirik. Egun hauetan korreozko botoen tramitazioak eta horrelako lanak egin ditugu eta hemendik aurrera propaganda kontuak eta beste hainbat lan egin beharko ditugu". Koruko Aizarna Kultura diputatua eta Luis Mari Oiarbide Bergaran izango ditugu datorren eguaztanean, hilak 14. Oraingoan EAKoek ez dute Bergaran beste ekitaldirik iragarri kanpai-

Hautagai bergararrak hauteskunde autonomikoetan



TOMASA ZABALETA

Fagor Elekragailuetan lan egin zuen eta 1996ko otsailean San Xosepe jubilatuen elkartearen presidentea izendatu zuen. EAJren Gipuzkoako zerrendan 15. tokian joango da.



VICTORIANO GALLASTEGI

Bergarako alkatetzan bigarren legealdia betetzen ari da. Biltokiko langile ohia, 57 urte eta hiru seme-alaba ditu. EAJren Gipuzkoako zerrendan ordezkoren artean joango da bere izena, 27. tokian hain zuzen ere.



ISABEL SALUD

Bartzelonakoa jaiotzez, 7 urte eman zituen zinegotzi San Clemente de Llobregat herrian. Eibarko Udaleko administraria, 37 urte. Ezker Batuaren Gipuzkoako zerrendan hirugarren tokian izango dugu. Bergaran bizi da.



ANDRES DIEZ







Correoseko langilea da eta 41 urte ditu. Udal hauteskundeetan Ezker Batuko zerrendaburua izan zen Bergaran. Hauteskunde autonomikoei begira, Ezker Batuaren Gipuzkoako zerrendan azken tokian izango da, 25. postuan.



JABIER ZENDOIA

Udaleko zinegotzia izan dugu azken hiru legealdietan. Bergarako PSE-EEko Idazkari Orokorak 54 urte ditu eta Torunsan egiten du lan. Ezkonduta, bi seme-alaba. Gipuzkoako zerrendan 23. postuan.

BERGARAKO BOTO BANAKETA AZKEN HAUTESKUNDEETAN

	 EAJ	 HB	 EA	 PSE-EE	 IU-EB	 PP
Autonomikoak, 1994	2.245	2.449	1.249	796	435	436
Udal hauteskundeak, 1995	3.163	2.861	1.028	634	399	361
Orokorrak, 1996	2.559	2.244	1.278	1.358	480	657

narako. Juanita Otaño itxaropentsu azaltzen da EAk hauteskundeetan lortuko dituen emaitzei begira: "ilusioz beterik ari gara lanean eta nik uste dut orain dugun parlamentari kopuruari eutsi ahal izango dugula urriaren 25ean. Gu behintzat ahalik eta boto gehien jasotzeko lan egiten dugu. Gero ikusi behar..."

PSE-EEko alderdiki-deak ere baikor dira hauteskundeetan izango dituzten emaitzen aurrean. Jabier Zendoia Bergarako PSE-EEko Idazkari Orokorrak hori baieztatu digu; "uste dut gora egingo dugula urriaren 25eko hauteskundeetan. Gaur egun 12 parlamentari ditugu eta Legebiltzarrean beste bizpahiru eserleku lor ditzakeegula uste dut. Gure alderdikideek ez digute hutsik egingo eta horrez gain boto emale berriak izan ditzakegu hemendik pare bat aste-ra". Bergarako lokalera Jesus Egiguren (Gipuzkoako zerrendan bigarrena), Gemma Zabaleta (hirugarrena) eta Blanca Roncal (bosgarrena) hurbilduko dira kanpainaren bigarren astean, urriaren 21ean. Hala ere, Zendoia iritziz,

hauteskunde kanpainaren oihartzuna ikus-entzunezko komunikabideetatik heltzen da gaur egun, "nahiz eta herri mailan ere lan handia egiten den. Udal hauteskundeetan eta oraingo hauetan

Ohizkoa denez, kartelen pegatzeak martxan jarri du hauteskunde kanpaina. Herri mailan ere alderdi ezberdinak boto-emaleak erakartzeko lanetan dira

lan dexente egin behar izaten dugu herriko alderdikideok. Baina lanik gabe ez dago emaitzik eta jendeari propagandarekin botoa nori eman gogortzea ez dago sobran..."

Isabel Salud Ezker Batuko hautagaiak ez du hauteskunde kanpainarengan sinismen handirik, "gaur egun jendearen botoa nahiko definitua egoten delako aurrez. Komunikabide handietan izaten diren mahai-inguruek beharbada eragin piskat izan dezakete, baina gutxi". Ezker Batuak ez du ekitaldi politikorik programatu Bergaran baina baliteke alderdiko egoitza berria kanpainako egunetan inauguratzea. Ezker Batuak hauteskundeetan joka dezakeen

paperari buruz galdetzean, zera adierazi digu Saludek: "Lizarrako akordioa izenpetu genuenetik izan duguna, bi bloke horien ideia apurtzearena hain zuzen. Uste dugu posible dela hori eta

bide horretatik jarraitu behar dugu". Esan bezala, kartel pegatzeaz aparte, herri mailan ez dute lan handirik egiten Ezker Batukoek

autonomikoei begira: "udal hauteskundeetan desberdina izaten da, inplikazioa handiagoa izaten da beharbada eta hurrengotarako interesgarria litzateke ezkerreko alderdien artean zerrenda bateratua osatzea". Momentuz, autonomikoetan, orain dituzten 6 parlamentarietako dietela uste du Isabelek.

Urriaren 25ean Euskal Autonomi Elkarteko hautesle posibleak 1.821.456 lagun izango dira, horietatik 586.141 gipuzkoarrak. Bergaran, 12.909 lagun izango dira urriaren 25ean hautesleentzietara hurbiltzeko aukera izango dutenak (korreoz botoa emateko epea urriaren 15ean bukatzen da). Guztiona izango da hitza. B

Larkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

A. Fleming 7 BERGARA
☎ 943 76 53 15

Biko

BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

MUJIKA
Jantzidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Ari Ari-Mo(ko)lotov	Etengabe
10:00: Etengabe-Artusamak	Buya
11:00: Buya-Patatus	Artusamak
16:30: Guadalest-Moskis	SLP
17:30: SLP-Irubide Jatetxea	Moskis

DOMEKAN BARRUAN

16:00: Guadalest-Agiñaspi	Xurrupak
17:00: Xurrupak-Igandekoak	Artusamak
18:00: Artusamak-Urrutxurtu	Usoa
19:00: Usoa-SLP	Moskis
20:00: Moskis-Pinturas Bergara	SLP

ASTELEHENEAN BARRUAN

09:00: Komando Piperrak-Txipiron	Matxakategi
10:00: Matxakategi-Mo(ko)lotov	Agirrebeña
11:00: Agirrebeña-Zubixaurre Punk	Mo(ko)lotov
16:00: Igandekoak-Patxaran Team	La Juve
17:00: La Juve-Etengabe	Uve Bikoitza
18:00: Uve Bikoitza-Tom Cat Argandolas	HHH
19:00: HHH-Arbe Kirolak	Agiñaspi
20:00: Agiñaspi-Amozkibar	Arbe Kirolak

argi!

Arau aldaketa

Aste honetan arau aldaketa bat izan dela jakinarazi nahi du Antolaketa Batzordeak: atezaina areatik kanpo irten eta baloia hankarekin ikutzen badu, falta izango da baina ez du zigorrik jasoko. Bestalde, atezaina areatik kanpo irten eta baloia eskuaz ikutzen badu, 3 minututarako kanporatua izango da, bere taldearen kontrako falta izanez.

jokoz kanpo



Xabier Quintana
BAYER

G. Nola joan dira orain arteko partiduak?
E. Partidu guztiak irabazi ditugu. Iaz baino hobeto ari gara jokatzeko.
G. Zenbat jokalarik osatzen duzue taldea?
E. Zortzik. Aurten gainera jokalarri berri bat etorri zaigu.
G. Kopuru mugatua?
E. Bai. Justuak gaude baina jokatzeko nahikoa dela uste dut. Partidu guztiara etortzeko konpromisua hartu dugu taldekoek, aurreko egunean parranda eginda ere partidua jokatzeko alegia. Orain arte bete da, ea horrela jarraitzen dugun.
G. Zein postutan jokatzeko duzu?
E. Atzean. Beti jokatu dut toki berean eta gustora nago.
G. Taldearen batz besteko adina?
E. 20 urte.
G. Zenbat urte txapelketan?
E. Bi.
G. Zer da partidu bat jokatzeko gutxien atsegin duzuna?
E. Gustora etortzen naiz eta ondo pasatzen dut. Ez daukat inolako arazorik.
G. Eta gehien?
E. Partiduetan seriotasun osoz aritzea.

gora eta behera



Bi talde txapelketaren tontorrean

Bi talde dira orain arteko partidu guztiak irabazi dituztenak. Alde batetik FAC eta beste Bayer; bi hauek dira 9 puntu dituzten bakarrak. Azken hau izan da gol gehien sartu dituen taldea, guztira 21 gol sartu baititu.



Partiduetan huts egiteak

Antolaketa Batzordeak jakinarazi duenez, Zubixaurre Punk taldeak partidu batean huts egin du eta justifikazio barik berriz huts eginez gero, txapelketatik kanporatua izango da. Beraz, partiduren bat ezin jokatuz gero, antolatzaileei jakinarazi beharko zaie martitzen arratsalderako.

emaitzak

Pagomendi-Jauja OH Zerezos	6-5
A Ze Flaxa Etxagi-Bildurbarek Opel/Lam	3-2
Ortzi-Shaktale	4-1
Azpeitxi Jatetxea-Mongatxurrak	1-3
Bar Canalejas-Errotagain	2-3
FAC-Usoa	3-2
Urrutxurtu-Ion Autoak	5-2
Pinturas Bergara-Uve Bikoitza	1-6
Tom Cat Argandolas-Buya	4-1
Arbe Kirolak-Moskis	1-3
Amozkibar-HHH	1-2
Patatus-Ufala	0-7
Eri Sirimiri-Agirrebeña Jatetxea	3-3
Patxaran Team-Amilotx	3-0
Ezinleike-Ari Ari	5-1
Mo(ko)lotov-Bayer	1-3
Zubixaurre Punk-Matxakategi	0-3

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	7	3
2. Errotagain	7	3
3. Pagomendi	4	2
4. Azpeitxi Jatetxea	3	3
5. Bildurbarek Opel/Lam	3	3
6. Jauja OH Zerezos	3	3
7. Shaktale	3	3
8. Ortzi	3	3
9. Mongatxurrak	3	2
10. Bar Canalejas	3	2

A multzoa

	P	J
1. FAC	9	3
2. Urrutxurtu	6	3
3. Txipiron	6	2
4. Usoa	3	3
5. Komando Piperrak	3	2
6. Etengabe	3	2
7. Artusamak	3	1
8. Ion Autoak	0	2
9. Irubide Jatetxea	0	2
10. SLP	0	1
11. La Juve	0	1

B multzoa

	P	J
1. HHH	7	3
2. Arbe Kirolak	6	3
3. Uve Bikoitza	6	3
4. Moskis	6	2
5. Agiñaspi	4	2
6. Tom Cat Argandolas	4	2
7. Ufala	3	3
8. Pinturas Bergara	2	3
9. Patatus	1	3
10. Buya	1	2
11. Guadalest	1	1
12. Amozkibar	0	3

C multzoa

	P	J
1. Bayer	9	3
2. Ezinleike	7	3
3. Eri Sirimiri	7	3
4. Patxaran Team	6	3
5. Xurrupak	6	2
6. Matxakategi	3	3
7. Mo(ko)lotov	3	2
8. Ari Ari	3	2
9. Agirrebeña Jatetxea	1	3
10. Igandekoak	1	2
11. Amilotx	0	3
12. Zubixaurre Punk	0	3



Joan zen urtean 60 korrikalari inguruk hartu zuten parte.

Hil honen 24an jokatu da Behobia Txikia

Behobi Txiki lasterketan parte hartzeko deia zabaldu da dagoeneko. 15 kilometroko ibilbidea egin beharko dute korrikalariak, igerilekuetatik irten, Soralu-

zeraino joan eta itzuli hain zuzen. Urriaren 24an izango da eta irteera goizeko 10etan emango zaio. Ondoren, bazkaria antolatu da Iraho jatetxean. Bertara joan

nahi dutenek jatetxeko 943.761559 telefonora edo igerilekuetara deitu beharko dute. Bestalde, Behobia-Donostia lasterketa, azaroaren 8an izango da. B

Nutrizioa, osasuna eta kirola hizpide

Kirola Euskaraz programaren barruan, Deba Garaiko Mankomunitateak nutrizioaren inguruko hitzaldiak antolatu ditu. Lehendabizikoa, Nutrizioaren eta Osasunaren inguruko urriaren 19an izango da eta urriaren 20an berriz, Nutrizioa eta Kirolari buruzkoa. Bittor Rodriguez dietista eta elikagaien teknologia arituko da hizlari lanetan. Hitzaldiak, Bergarako Kultur Etxean izango dira arratsaldeko 19:00etan.

IKER AZAGIRRE BERRIZEN TXAPELDUN

Iker Azagirre bergararrak, joan zen zapatuan infantil mailan jokatu zen Berrizko lau t'erdiko pilota txapelketa irabazi zuen. Ikerrek hamahiru urte ditu eta 18-12 irabazi zion Garcinari. "Partidu hasieran tantu asko galdu nituen. Sakea lortu nuenean poliki-poliki goruntz egin nuen. Ez zen erreza izan. Sei partidu jokatu behar izan nuen finalera heltzeko baina zorionez txapela etxera ekartzea lortu nuen". Iker, pilota federazioan dago eta aurrerantzean hainbat txapelketatan jardungo da. Euskal ligan, Baque txapelketan eta klubean arteko txapelketan, besteak beste.



Bergarako pilota denboraldia martxan

Udal Kirol Zerbitzuak eta BKEko pilota sailak, Bergarako eskuz binakako txapelketa antolatu dute azaroaren 8rako.

Bi maila bereiztuko dira: elite maila, Deba Garaian bizi diren 18 urtetik gorakoentzat eta lehiaketa ofizialetan parte hartzen ez dutenentzat; eta herri maila, Bergaran bizi diren 16 urtetik gorakoentzako eta, era berean, lehiaketa ofizialetan parte hartzen ez dutenei zuzenduta izango dena. Bergarako Udal pilotalekuan izango da igande goizetan azaroaren 8tik aurrera. Elite mailakoek, 2.000 pta ordaindu beharko dute bikoteko eta herri mailakoek 1.000. Izene-matea, Udal Kirol Zerbitzuan 943 77 91 67 edo BKE egin beharko da.

Pala txapelketan izena emateko epea luzatu da

Kirol Zerbitzuak jakitera eman duenez, zortzi izan dira Binakako IX Pala Txapelketan izena eman duten bikotek eta ondorioz, izene-matea 15 egunez luzatzea erabaki dute. Epea urriaren 15ean amaituko litzateke. Egun horretarako, bilera antolatu da, arratsaldeko 19:00etan, Kultur Etxean txapelketaren antolaketaz eta arautegiaz hitz egiteko.

Iraundi eskubaloi taldeak bikain hasi du denboraldia

Ormaiztegi indartsuaren kontra nagusitu ziren etxetik kapo



Iraundi senior taldea, BKEren eskubaloi talde nagusia.

Eskubaloiko taldeak denboraldiari begira jarri dira. Iraundi izan zen joan zen astean lehen-dabiziko partidua jokatu zuena, Ormaiztegiaren kontra 19-21 irabaziz. Gainontzekoek, kadete mutilak izan ezik, aste-bukaera honetan jarriko dira martxan. Horrela izanik, taldeen errepa-soa egin dugu eta horretarako Xabier Lijorekin aritu gara hizketan.

Aste bukaera honetan, Iraundi Mutrikuko Jaujaren kontra arituko da eguerdiko 12:15etan. Jubenil mailako

neskek eta mutilek, lehen-dabiziko partidua izango dute. Mutilek, Arrasateren kontra 11:00etan eta neskak berriz Zestoan. Datorren astean kadete mutilen txanda izango da, Arrasaten.

Aurpegi berriak Iraundi Bergaran

Denboraldi berria hastean, aurpegi berriak ikusteko aukera izaten da. Eskubaloian, jubenil mailan bi urtetan izandakoak talde nagusira igoko dira. Iraundiren kasuan, zortzi izan dira fitxaketa berriak eta beste zortzi taldetik kanpo geratu

direnak. Jubenilak izandakoak, Ruben Sanchez, Urko Altzerreka, Mikel Agirrezabal eta Gaizka Osa eta fitxaketa berriak, Urtzi Rubio, Eñaut Albarez, Aitor Sanchez eta Eugenio Cabo izan dira.

“Azken hauei taldean jokatzeke proposamena luzatu nien. Duela bi urte eskubaloian aritutakoak dira eta taldean genituen hutsuneak betetzeko beharrezkoa genuen jokalar berriak izatea. Joan zen denboraldia amaitu zenean, jokalar asko taldetik kanpo geratu ziren. Jokalar berriak berreskuratzeko garaia iritsi zen eta in-

teresa eta maila erakutsi zuten, taldean sartu dira”. Xabier Lijo, hirugarren urtez Iraundi taldeko entrenatzaile izango da.

Joan zen denboraldian ez zuten sailkatzeke aukerarik izan baina lehen maila territorialari eustea lortu zuten. “Hasieran partidua irabazten hasi ginen baina denboraldia aurrera joan zen heinean, zorte txarra izan genuen. Aurten maila mantentzearekin konformatzen gara. Dena dela taularen aurrean ibiliko garela uste dut, taldea egoera onean baitago. Jokalar berri asko dago eta oraindik espe-

rientzia falta da. Helburu nagusia, taldekideen artean giro aproposa sortzea da”.

Gorka Larrañaga, Lijori entrenatzaile lanetan laguntzen arituko da.

Jubenil mutilak

Josetxo Muniategiren mutilak joan zen denboraldia ondo hasi zuten arren, lesio ugari, taldearen egonkortasuna apurtu zuen. Sailkapenaren aurrealdean izatetik, hamalau taldeetatik zazpigarren postuan sailkatuzera heldu ziren.

Jubenil taldean bigarren urtez dabilzanak eta kadete mailatik igo direnak osatzen dute denboraldi berriko taldea. Juan Luis Ruiz de la Cuesta bigarren entrenatzaile gisa arituko da. “Kadeteak ezik, aurre-denboraldian, 4 edo 5 egunetan zehar izaten ditugu entrenamenduak. Oso garrantzitsua dela uste dut. Denboraldia hasitakoan, hiru egunetan zehar entrenatzen dugu. Kadeteak ostera, bi egunetz arituko dira”.

Neska talde bakarra, jubenil mailan

Eskubaloian izango den neska talde bakarra da eta jubenil mailan lehendabiziko aldiz jokatu dute. Joan zen urtean kadete mailan aritu ziren. Nesken talde bakarra izatean, ez dute euskal ligan jokatzeko aukerarik; beraz, Gipuzkoako liga irabazi edo aurre aldean

sailkatzea izango dute helburu. Entrenatzaile lanetan Edu Orgaz eta Nagore Jaurerri arituko dira.

Kadete mutilak

Aste bat falta zaie txapelketako lehen partidua jokatzeko. Edu Iñarrak entrenatzaile lanetan dihardu eta laguntzaileak Gaizka Osa eta Ibai Goenaga dira. Azken hauek, bestalde, Iraundi taldean ari dira jokatzeko. Euskal ligan jokatzeko aukera aprobetxatu ez arren, Gipuzkoako eta Federazio kopan lan polita egin zuten joan zen denboraldian, bigarren eta hirugarren postuan sailkatuz. “Jubenil eta kadete mailan euskal liga jokatzeko sailkatzen ez bada, lehendabizi Federazio kopa jokatzeko da eta ondoren Gipuzkoako kopa. Gipuzkoako kopa, euskal ligan eta federazio kopan aritu direnak jokatzeko dute. Alde handiak nabaritzen dira, euskal ligako maila handiko jendea izaten baita bertan. Dena dela kadeteek lan polita egin zuten”. B

Talde guztiek mailari eustea dute helburu eta neskek liga irabazteko aukera ugari dituzte



Jubenil mailako mutilak.



Kadete mailako mutilak.



Jubenil mailako neskek.

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta 29
943 76 22 90 - 943 76 26 75

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Pisu amueblatua salgai Antzuolan. 943 76 60 41.

Barrenkalean apartamentua. 943 76 56 41.

Etxea salgai Osintxun. Erdi-amueblatua. 943 76 49 74.

S. Antonio. 943 76 56 20.

Pisua salgai San Lorentzon. 943 76 31 16.

Pisua salgai Martokon. 943 76 34 20/37 99.

Pisua salgai Aranerrekalean. 943 76 52 17.

Pisua salgai A. Fleming kalean. 94 658 32 05

Errentan hartzeko

Berritzeko dagoen baserri bat hartuko genuke. 943 79 48 09 (Itziar).

Etxe konpartituak

Neska behar da Donostian pisua osatzeko. 943 71 49 46.

Bergaran pisua osatzeko lagun bat behar da.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zator Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

943 76 47 55.

Bi pertsona behar dira Bilbon (San Inazio) pisua osatzeko. 943 77 13 77.

Donostian (Amara) bi lagun behar ditugu pisua konpartitzeko. Deitu 943 79 27 42 telefonora.

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea Torrekuan.

2 plaza. 943 76 28 24.

Garajea salgai Masterrrekan. 943 76 27 71.

Burdiñate. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Garajea salgai Masterrrekan. 943 76 24 57.

Boni Laskurain. 943 76 17 84.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

S. Antonio. 943 76 15 37.

Kruz Gallastegi. 943 76 27 61.

Errentan emateko

Garajea alokairuan Bolun. 943 76 55 26.

Garajea alokairuan Ibargarain. 943 76 56 91.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Errentan hartzeko

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. Deitu 943 76 47 50 (Jabi) telefonora.

Garajea alokatuko nuke. Telefinoa: 943 76 05 17.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai A. Fleming. Deitu 943 76 00 84 / 35 83 telefonoetara.

Erosi

5.000 m2ko lursaila erosiko nuke Bergara inguruan. 943 76 70 24.

40 m2 inguruko biltegi edo baxu bat behar du. 945 14 17 84 (17:30-20:00).

4. LANA

Eskaintzak

Edadetuak zaindu edo etxeko garbiketarak egingo nituzke. 943 76 00 90.

Klinika laguntzaileak gaisoak/helduak zaintzen ditu. 943 76 64 47.

Goizez, etxeko lanak egin edo haurrak zainduko nituzke. 943 76 46 07.


Atarien edo etxeen garbiketara. 919 52 98 04.

Etxeko lanak orduka. 943 76 57 59 (Julia).

Arratsaldeetan haurrak zainduko nituzke. Esperientzia. 943 76 03 76.

Edadetuak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. 943 76 09 33.

Helduak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke (astebukaeran).



A. Fleming 5
BERGARA
Mobilak:
907 44 50 38
907 46 57 38

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA
BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA
Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25

GOXO-TOKI
Artisautzako izozkia
Irala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxistegi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

IKUSBI
ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK
Irala 5 ☎ 943 76 53 09

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

943 76 50 46.

Lanak ordenadorez pa-
satzen ditut (testuak
zein grafikoa).
943 76 61 24.

Tabernari lanak egingo
nituzke. 943 76 37 56.

Neska batek haurrak
zaindu edo denda/bule-
go batean lan egingo
luke. 943 76 26 82/76
57 34.

Haurrak zaindu edo etxe-
ko lanak egingo nituzke.
943 78 70 32 (Sara).

Esperientziadun neska
batek helduak zainduko
lituzke. Deitu
943 76 32 16 zenbakira.

Eskaerak

Antzuolan neska bat
behar da umeak zaindu
eta etxeko lanetarako.
Deitu 943 78 71 06
telefonora.

Neska edo andre eus-
kalduna behar da egun
osoan etxean lan egite-
ko. 943 76 13 23.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Lizentziatuak mate, fisi-

ka eta kimika klaseak
ematen ditu.
943 76 70 40.

OHO eta BBBko 3. mai-
lara arteko klaseak.
943 76 72 24 (Saioa).

Filologia ingelesean li-
zentziatuak ingeles kla-
seak ematen ditu.
943 76 30 28 (Ana).

Soprano profesionalak
kantu klaseak ematen
ditu. 943 76 65 24.

Majisteritzako ikasleak
OHO klaseak ematen
ditu. 943 76 47 30
(Aitziber).

OHO eta BBB klaseak.
943 76 33 26.

Ingeles klaseak.
943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak
OHOk klaseak ematen
ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mai-
lara arteko klaseak.
943 76 32 93.

Mate, fisika eta LOGSE
2. mailara arteko klase-
ak. 943 76 24 31.

Enpresaritzako klaseak.
943 76 05 43.

1. eta 2. Hezkuntzako
klaseak. 943 76 42 08
(Nere).

Majisteritzan diploma-
tuak klaseak ematen di-
tu. 943 76 10 17 (Rosa).

Arte Ederretan lizen-
tziatuak pintura, ma-
rrazketa eta grabatu
klaseak ematen ditu.
943 76 03 83 (Dani).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Renault-9 kotxea (SS-V)
salgai. 943 76 25 31.

Rover 216 (NA-W).
943 72 63 47 (Angel).

Alfa Romeo 33 1700 i
(SS-AK). Aire egokitua.
943 79 75 11.

Opel Ascona 1.600 (SS-
W) salgai. 943 76 05 13.

Remolkea salgai.
1,10x1 m. Poliesterez-
ko tapa. 943 76 37 87.

Kotxea (SS-V) salgai.
Deitu 943 76 36 74
telefonora.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea
salgai. 943 76 50 05.

Opel Corsa 1400 kotxea
(BI-BF) salgai.
94 658 24 70 (Nerea).

Ford Sierra kotxea (SS-
S) salgai. 943 76 18 28.

7. ANIMALIAK

Saldu

Artzain-txakurrak eta
polizia-txakurrak salgai.
Deitu 943 76 52 21
telefonora.

Beagle (eta honen gura-
soak) eta Tekel txakur-
kumeak salgai.
Deitu 908 87 93 76
telefonora.

8. DENETARIK

Saldu

Calloy mendiko bizikle-
ta. 943 78 70 58.

Bainurako manpara,
1,55 m. 943 76 64 65.


Lur entziklopedia
salgai. 943 76 02 79.

Bizikleta estatikoa
salgai. la berria. 10.000
pezeta. 943 76 07 88.

Hozkailua erosiko nuke.
943 76 50 58 (Maritere).

Ohe bat (133x180)
salgai. 943 76 11 11.

Flex markako litera bat
(35.000 pezeta) eta te-
lefonorako egurrezko
mueblea (10.000) sal-
gai. 943 79 57 64.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

**KALEFAKZIO
INSTALATZAILEA**
Gasteiz. 13015/3

**TAILERREKO
2 ARMADORE**
Gasteiz. 11786/3

**OBRAKO
MONTADOREAK**
Gasteiz. 11783/3

**MANTENIMENDU-
RAKO MEKANIKOAK**
Tolosa. 12162/4

**TELEMARKETING
ARDURADUNA**
Donostia. 13163/2

**ANALISTA
PROGRAMATZAILEA**
Ibaizabal. 13138/2

TORNULARIA
Plentzia-Mungia.
12972/1

TROKELISTA
Durangaldea. 13035/3

**YOGAKO
MONITOREA**
Bilbo. 13005/3

**MEKANIKO
ARTEZLARIA**
Bilbo. 12979/2

CNC LANGILEA
Bilbo. 12911/5

FRESATZAILEA
Bilbo. 126910/4

**ANALISTA
PROGRAMATZAILEA**
Bilbo. 12674/4

**MEKANIKARI
NAUTIKOAK**
Gernika. 12493/4

TORNULARIA
Durangaldea. 11618/4

**Lan eskaintza hauetakoren bat
interesatzen bazaizu,
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta
eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**Ezin
atenditzeagatik,
irekita dagoen
taberna alokairuan
Bergaran**
Tf. 943 76 20 19

Super BM 

**Etkez-etxe erosketak eramateko
persona behar da.**

Interesatuok jarri lehenbailehen harremanetan
Eduernekin: 943 76 11 12.

ARDATZA
Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93



☎ 943 76 20 61

**ONENA
TINTATEGIA**

Barrenkalea 29 BERGARA

**BEHEKO
TABERNA**

**Menestra eta konejoo
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR TE.: 943 76 55 74

Dantza jaialdia zapatuan Udal Pilotalekuan

Xamatx, Aranzadi eta Leongo Virgen de la Guía dantza taldeen eskutik

Xamatzek dantza jaialdia antolatu du zapatu gauerako, hurren euskal jaiaren XXV. urteurrena ospatzeko. Leongo Santa María del Páramo herriko Virgen de la Guía jota taldeak, Aranzadi Ikastolako dantza taldeak eta Xamatzek hartuko dute parte.

Jaialdia gaueko 22:30etarako iragarri dago Udal Pilotalekuan eta sarreak 500 pezetan salduko dira. Ordu eta erdi iraungo du jaialdiak. Lehenengo zatian, Virgen de la Guía jota taldeak hogei bat minutuko saioa eskainiko du. Ondoren, Aranzadi Ikastolako sei talde arituko dira eta, jarraian, Xamatzek Sorgindantza eskainiko du. Jaialdiari amaiera Leongo taldeak emango dio.

Leongo jotak

Xamatzekoak Santa María del Páramon izan ziren irailean, bertako dantza taldeak gonbidatuta. Orain, ostera, eurak etorriko dira Bergarara; 35 bat lagun etorriko dira. Astebukaera osoa emango dute Euskal Herrian. Zapatu goizean helduko dira Bergarara eta



Aranzadi Ikastolako haurrak ere izango dira.

bertan bazkaldu eta herria bisitatu ostean, jaialdian hartuko dute parte. Ondoren, Xamatzekoekin afalduko dute eta Eibarko Unibertsitate Laboralean egingo dute lo. Hurrengo egunetan Donostia eta Bilbo bisitatu dituzte.

Aranzadi Ikastolako 50 bat haur

Aranzadi Ikastolako sei dantza taldeetan 4 urtetik 15 urtera arteko 50 bat neska mutiko dabilta. Uda partean hurren euskal jaietan aritzen dira eta Bergarako jaietan ere eskaini ohi dituzte dantzak. Zapatuan Udal Pilotalekuan izango dira.

Xamatx, ostera, 45 bat lagunek ostutzen dute. Dantzarietz gain, txistulari eta danbor joleak, eta klarinete, akordeoi, txapa, flauta, bonbo eta oboe joleak ere izango dira zapatuan.

Dantza jaialdia Xamatzek antolatu du eta Taun Taun txotxongilo taldeak ere lagundu du, eszenatokiarekin atzealdean jarriko den teloa lagaz. Biltzen den dirua gastuei aurre egiteko erabili dute.

Bestalde, San Martinetan antolatutako zozketan 170 zenbakia irten da. Jabea agertu da eta txerri bat edo 50.000 PTA.ko saria jasoko du. Txartelen salmentarekin eta San Martingo ferian jarritako postuarekin 500.000 PTA inguru batu dituzte Xamatzekoek. B

Bergarari buruzko 1926. urteko filmea estreinatuko da datorren eguakitzean

Mauro eta Victor Azkona anaiei "Bergara 1926" filme laburra estreinatuko da datorren eguakitzean, Novedadesen 20:00etan. Sarrera doan izango da.

Santo Kristo Hilzorikoa-ren harreraren 300. urteurrena ospatzeko, 1925. urtean Bergarako Udalak Bilboko Lux etxeari eman zion herriari buruzko irudiekiko pelikula egiteko enkargua. Asmoa, ospakizunen berri eman eta, bide batez, pelikula herriari buruzko propagandarako erabiltzea zen. Ekoizpen etxeak Barakaldoko Azkona anaiei eman zien irudiak filmatzeko enkargua.

Bergarako Udalak 1.500 PTA ordaindu ei zituen 750 metroko pelikularengatik.

Datorren astean estreinatuko den filmeak 37 minutuko iraupena du eta bertan, Bergarako etxe dotoreak, herriko denda eta lantegiak eta ospakizunetarako antolatutako jaiak agertzen dira: buruhaundiak, gargantua, dantzak e.a. Pelikula mutua da, baina azpititulok gazteleraz eta J. Carlos Irizarren musika jarri diote.

Pelikula Euskal Filmetegiaren egoitzan, Donostian, gordeta izan da eta kopia bakarra ei zegoen. Nahiko



Azkona anaiei "Bergara 1926" filme laburraren fotograma bat.

hondatuta zegoenez, berreskuratze prozesua konplikatu izan da. Eguakitzeko emanaldiaren aurretik, Pello Aldazabalek, Euskal Filmetegiko zuzendariak,

aurkezpena egingo du. Eguakitzean Donostian aurkeztuko da. Bestalde, pelikula bideora pasatu da eta 1.000 pezetan jarriko da salgai. B

Argazki ederrak ikusgai

Bergara Hiria lehiaketako argazkiak Kultur Etxean

Bergara Hiria XIV. Argazki Lehiaketako sarituak jakitera eman ditu Pol-Pol Argazki Taldeak, lehiaketaren antolatzaileak. 33 lagunek hartu dute parte lehiaketan eta horietatik 7 bergararrak dira; guztira, 111 lan aurkeztu dituzte.

Zuri-beltzean honako hauek izan dira sarituak: lehen saria, Javier P. Fernandez berangoarra; bigarrena, Benito Cantero bergararra; hirugarrena, Andres Indurain Irundarra eta, herriko

onena, Jose Agustin Gurrutxaga. Kolo-retako argazkietan, berriz, honako hauek: lehen saria Javier P. Fernandez; bigarren saria, Iñaki Delgado donostiarra; hirugarrena, Javier de la Flor bilbotarra eta, herriko onena, Zigor Ruiz de Egin (behean ikus daiteke *Aizkorri* bere argazki saritua). Bi sailetan 25.000, 20.000, 15.000 eta 10.000 pezeta eta trofeo bana jasoko dute lau sarituek. Azpimarratzekoa da zuri-beltzeko zein

koloretako argazkietan Javier P. Fernandez izan dela irabazlea. Era berean, nabarmentzekoa da Benito Canterok "Nagarrez" argazkiarekin lortutako bigarren saria zuri-beltzeko argazkien sailean.

Sari banaketa gaur, eguaitza, iluntzeko zortzietan egingo da Kultur Etxean. Ondoren, 40 argazki onenen erakusketa zabalduko da. B



Kramer eta Migala: pop konbentzionaletik urrun

Mark Kramer ekoizle eta musikari estatubatuarra (argazkian) eta Migala talde madrildarra Jam aretoan izango dira domekan 22:00etan. Lehenengoak "Songs from the pink death" bere azken lana aurkeztuko du; madrildarrek, berriz, kalean duten disko bakarra, "Diciembre 3 AM" izenekoa.

Kramerrek, besteak beste, Galaxie 500, Urge Overkill, Jon Spencer edo Royal Trux-en lanak ekoiztu ditu. Hala ere, berak sortutako musika erakustera dator Bergarara. Luna eta Galaxie 500

taldeetako musikoekin grabatu du azken diskoa. Konbentzionalismoetatik aldentzen den pop kantuak eskainiko dizkigu. Kramerrekin batera, Migala izango da. Luna, Suicide, Velvet edota Pink Floyd-en eragina ikusi dute askok madrildarren lehen diskoan. Bergarako Udalak diruz lagundutako kontzertua da eta sarrera 500 pezeta kostako da. Gauza berriak entzun nahi dituztenentzat gomendagarria duda barik. B



salduenak / iraila

LIBURUAK

Euskaraz

- TENTAZIOAK**
Jasone Osoro. Elkar
- NIK ERE GERMINAL...**
Koldo Izagirre. Susa
- SAMURAI BERRIA**
J. M. Velez de Mendizabal. Elkar
- OSTEGUNAK**
Jon Arretxe. Elkar
- GROENLANDIAKO LEZIOA**
Bernardo Atxaga

Erdaraz

- VAGABUNDO EN AFRICA**
Javier Reverte. El País Aguilar
- LA BOTICA DE LA ABUELA**
Telebistako saioari buruzkoa. Integral
- LAS CENIZAS DE ANGELA**
Frank McCourt. Maeva
- EL FUTURO ES NUESTRO**
Larry Collins. Planeta
- EL DIOS DE LAS PEQUEÑAS COSAS**
A. Roy. Anagrama

Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu

DISKOAK

- DEPENDE**
Jarabe de Palo
- TUBULAR BELLS III**
Mike Oldfield
- E.B.S.**
Ella Baila Sola
- SOMBROS DE LA CHINA**
Joan Manuel Serrat
- DILE AL SOL**
La oreja de Van Gogh
- ARENA EN LOS BOLSILLOS**
Manolo García
- GLORIA**
Gloria Estefan

Iturria: Etxepare-Bilintx eta Zaiatzko

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar 3. 943 76 16 14
Ibargari 8. 943 76 54 73

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargari 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Igarkizuna. 2. Lanbro. Laster. 3. Bat eta bat. Antzerkia. Oxigenoa. 4. Gizon izena. Agiri mota. 5. Iruditu. Lehenengoa. 6. Istu. Sortalde. 7. Bokala. Iodoa. Non atzizkia. Euskaraz eta kitto! 8. Letoniako hiriburua. Fruitu tropikala. 9. Euskal eskola. Bat. 10. Bokala. Ehun mota. Edari alkoholodun.

Goitik behera

1. Abereak sendatzen dituen pertsona. 2. Santu. Iparretarrak. 3. Musika nota. Dauka. 1997an. 4. Emakume. Bete. 5. Lasterketa. Kontsonante bustia. 6. Bokala. Bokala. Sendoa. 7. Mahai gaineko oihala. Alkoholon bukaeran. 8. Pluralean, oinarrizko edaria. Herri nafarra. 9. Naizen hau. Gizon izena. Borobila. 10. Artzainen janari kopurua. VI. hil.

Soluzioa

Ezker eskuma
1. Asmakizuna. 2. Laino. Arn. 3. Bi. Drama. O. 4. Ander. Akta. 5. Iduritu. A. 6. Tu. Ekialde. 7. A. l. An. AEk. 8. Riga. kokoa. 9. Ikastola. l. 10. A. Zeta. Ron.
Goitik behera
1. Albatarra. 2. Saindu. Ik. 3. Mi. Du. Igaz. 4. Andere. Ase. 5. Korrika. Ti. 6. l. A. Tinkoa. 7. Zamaia. OI. 8. Urak. Lakar. 9. Ni. Tadeo. O. 10. Anoa. Ekain.

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Zein erakundek ditu bere bulegoak Narbaiza Baita izenez ezagutzen dugun etxe honetan?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Panaderokua** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Jose Luis Marzanentzat** izan da: Tartufo jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Jose Luisi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Amillaga Iturriondo / Zubiaurre** Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Elosuko feriaren zenbagarren edizioa da aurtengoa?
A- Hamargarrena
B- Hogeigarrena
C- Hogeitabosgarrena
- Zein da jubilatuen Kultur Hamabostaldiko lema?
A- Pausoz pauso aurreratuz
B- Eman bakia baita
C- Beti emon leike pauso bat aurrerago
- Nortzuk dira 'Bergara 1926' filme laburraren egileak?
A- Azkona anaiak
B- Juan eta Antonio Bardem
C- Irizar anaiak

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____

Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**

**Txuringo
Jatetxea**

Osintxu
Tf. 943 76 48 63

Filosofia eta Letrak ikasketak egin zituen Bilbon eta duela sei bat urte yoga praktikatzeari ekin zion, Vigon monitore tituloa eskuratuz. Gaur egun frantses klaseak ematen ditu UNEDeko Hizkuntza Eskolan eta Bolun yoga erakusten du.

Zergatik hasi zinen yoga praktikatzen?

Oso urduria naizelako; lasaitasun bila, bizimodua hobetzeko, ondo lo egiteko...

Modan dago yoga egitea?

Bai, guztiok neurri batean edo bestean stressa daukagulako.

Nondik dator yoga?

Indiatik. 5.000 urtetik gora dauzka.

Zer dugu ikasteko hanga kulturetatik?

Lasaiago bizitzen eta hain materialistak ez izaten.

Yoga egiteko momenturik onena?

Guztiak. Nik nahiago dut arratsaldeko 7ak aldera egitea.

Bakarrik ala lagunduta?

Berdin zait baina beste batzuekin igual hobeto.

Beharrezko kualitateak?

Ez da konpetizioa, edonork egin dezake.

Emakumeak ala gizonetakoak dira yoggie hobeak?

Emakumeak beharbada, flexibilitate gehiago dutelako.

Adinik egokiena yoga egiteko?

Txikitatik hasia onena.

Eskoletan eman beharko litzateke?

Bai, Europako toki askotan ematen da. Batez ere arnasa ondo hartzen ikasteko.

Zeintzuk dira abantaila nagusiak?

Lasaitasuna, elastizitatea... Eta gauzak modu positiboagoan hartzen ikasten da.

Elikadura eta yoga lotuta doaz?

Gloria Ena

Ez da beharrezkoa, nik denetik jaten dut.

Yogaz aparte, beste kirolak bai?

Igeriketa eta mendian ibiltzea.

Hobby bat?

Irakurtzea eta pianoa jotzea. Pianujole frustratua naiz.

Zergatik ikasi zenuen frantsesa?

Txikitatik gustatu zaizkit hizkuntzak.

Zenbat hizkuntza dakizu?

Frantsesa, grekoa, latina, euskara, ingeles piskat, arabiarra ere zertxobait...

Bisitatuko zenukeen herrialde bat.

Argentina, osaba-izebak dauzkat han.

Kolore bat?

Horia.

Animalia bat?

Katua. Ortuan lau ditugu.

Egunkarian irakurtzen duzun lehen gauza?

Portada.

Besteengan gehien apreziatzen duzuna?

Egjazaletasuna.

Aktore bat?

Kevin Costner.

Irla desertu batera eramango zenituzkeen hiru gauza.

Liburu bat, katua... eta Kevin Costner.

Eta zer ez zenuke eramango?

Telefonoa.



ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

AROSZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK, PARGETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38



ASPERTZEN EZ DUEN ZINTZARRIA

Egun osoa euskaraz


Bertsok, trikitixa, musika goxoa, herri kirolak, elkarrizketak, kultur saioak, herrietako berriak, umeen irratsaioa, alaitasuna...

Tf. 943 12 01 61 Faxa: 943 12 01 73. 212 postakutxa 20600 Eibar.

POL-POL

Taberna

☎ 943 76 07 78





Zubietako eskolan, 1961

Bergarako neska-mutilek hasiera eman diote dagoeneko ikasturte berriari. Opor luzeen ostean berriz ere amantala jantzi eta klase-ra... Ikasgaiei neurria hartzen dieten bitartean izango dute lagunekin oporrak gogoratzeko aukera. Lehen ere eskolaren hasiera gogorra gertatuko zitzaaien ikasleei. Argazkia Zubietako eskolan 1961-62 ikasturtean aterata dago, eskola martxan jarri berria zelarik. Hara hor zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

Goian: Angel Errotatxo, Emilio Imaz, Ignacio Arruti, Jose Luis Durana, Jose Joaquin Esnaola, Jesus Rodriguez, Maria Pilar Lonarbide andereñoa, Iñaki Madariaga, Bilbao, Modesto

Aranburu, Fernando Juaristi eta Jose Antonio Aranzabal.

Beherago: Mari Cruz Gantxegi, Angelita Agirrebeña, Ascension Diaz de Gereño, Rosi Imaz, Mari Jose Durana, Blanca Guillen, Aintzane Bideluze eta Zelaia.

2. ilaran: ezezaguna, Maria Jesus Prat, Jaione Etxeberria, Maria Pilar Larrion, Maria Jesus Irazabalbeitia, Mentxu Bilbao, Kontxi Moreno eta Rosarito Navarro.

Aurrean: Jesus Mari Unzueta, Jose Luis Beitia eta Fernando Royo.

Argazkia: Blanca Guillen

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



Zumelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

TELAETXE S.A.



Fabrikako prezioan!



**NEGUKO OIHAL
BERRIAK
PREST!**

**Tapizeria berriak eta kortina
aukera handia**

**Aukera handia oihaletan eta pusketetan, metroka zein pisura
Edredoi nordikoak**

Tapizen erakusketa:

Zetak, kortinak, toailak, yakareak, izarak, tapizak, eta abar

**Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, Cotones Agirrezabal-en ondoan)
Telefonoak: 943 76 39 40 / 39 41 • Faxa: 943 76 56 38 • BERGARA**

ORDUTEGIA

Astelehenetik zapatara: 10:00-13:00 eta 16:00-19:30

centro hogar MUEBLES



a, eme...interiores

sukaldeak



Sofa
leku

GRUPO
Amuebladora
Mondragonesa

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE
Tel. 943.791503 - 943.771492 • Faxe 943.791489